

BERTSO EXHIBITION CENTER >

Sebastian Lizaso • Genero gogoetak • Txapelketa Nagusia, zenbakitan • Elkarriaketak zortzi finalistei • Bertsolariak, Ivan Landa ilustratzailearen begietara • Oraingoa, argazkitan • Lehengoak, argazkitan

2017ko abenduaren 16a | XI. urtea • 548. zbk.
0,50 euro

GAUR8

mila leiho zabalik
www.gaur8.info



**BEC JENDEZ, BERTSOZ, PUNTAZ
BETETZEKO PRONTO >**

Luis JAUREGIALTZO | ARGAZKI PRESS

ELKARRIZKETAK:

10 Amets Arzallus:

«Oso barneratua daukat txapelketa»

12 Maialen Lujanbio:

«Saio kontziente bat egin nahi dut»

14 Aitor Sarriegi:

«Bertso ukigarria gustatzen zait»

18 Unai Agirre:

«Jokora sartu behar dut»

20 Sustrai Colina:

«Bertso bakoitza aukera bat da»

22 Igor Elortza:


«Anbizio puntu batekin noa»

28 Beñat Gaztelumendi:

«Badakit zer egin behar dudan»

30 Aitor Mendiluze:

«Serio etiketa jarri izan didate»



Datu praktikoak

9.00. Ateen irekitzea

11.00. Goizeko saioa

14.30 aldera bazkaria

6. pabilioian izanen da bazkaria. Etxetik ekarritakoa janen dutenek ere mahaia izanen dituzte.

16.30. Arratsaldeko saioaren hasiera

20.00. Sari ematea

- Bertsolarien lanak:

Goizean (15 bertso):
Binaka, gaia emanda, hiru-na bertso zortziko handian. Binaka, gaia emanda, hiru-na bertso zortziko txikian. Banaka, lehen puntua emanda, hiru bertso zortziko txikian. Binaka, gaia emanda, hiruna bertso hamarreko txikian. Kartzela: banaka, gaia emanda, hiru bertso nahi den doinu eta neurrian.

Arratsaldean (10 bertso):
Binaka, gaia emanda, hiru-na bertso sei puntuko motzean. Binaka, gaia emanda, zortziko txikian puntutan, zortzi bertso osatu arte. Banaka, gaia emanda, hiru bertso doinu eta neurri librean.

Buruz burukoa (11 bertso):
Binaka, gaia emanda, hiru-na bertso zortziko handian. Binaka, gaia emanda, launa bertso zortziko txikian. Kartzela: Banaka, hitza gaitzat emanda, bertso bat bederatziko txikian. Banaka, gaia emanda, hiru bertso librean.

«Aitarentzat esker on bat da. Lizasotarren familiarentzat ohore bat»

SEBASTIAN LIZASO

TXAPELA JARRIKO DUEN TXAPELDUNA

Bertsoa eta bularra batera hartu zituen. Hizketan bezala egiten du bertsotan, bertsotan bezala hizketan. Bizkorra da erantzuten. Jaialdi borobil baten brotxea izatea nahi du txapela jartzea.

Maidar Iantzi Goienetxe



Jon URBE | ARGAZKI PRESS

1982tik 1997ra parte hartu zenuen txapelketan eta denetan iritsi zinen finalera.

Bai, gainera uste dut egin nuela bitan bigarren, batean hirugarren eta azkenekoan ere bigarren nintzen eta baneukan 2001ekoan finalean zuzenean sartzeko aukera. Baina erabaki nuen txapelketetan nahiko ibilbide egin nuela eta ez joatea.

Gaizki pasatzen zenuen lehian?

Txapelketan beti pasatzen da gaizki. Lanera joaten zara eta nekeza da gozatzen. Eguna oso luzea da, tentsio ikaragarria... Plazakoa arinagoa da.

Plaza gehien egiten dituen bertsolarietako bat zara. Zenbat egiten dituzu urtean?

140-150en bueltan ibiliko naiz. Garai batean eromena izan zen. 200en bueltan ibiltzen ginen eta hori esajerazio bat da.

Adin Adin proiektua ere sortu duzu. Zahar etxeetan bertso saioak antolatzen dituzue.

Adineko jendearentzat altzari eta gruak saltzen egiten dut lan, egoitza asko bisitatzen dut eta pentsatu nuen merezi zutela proba egitea. Hasi ginen eta oso emaitza onak izan ditu. Geldirik egon ezin diren pertsonak mugitu ere ez dira egiten. Jende askok ume garaian ikasitako bertsoak kantatzen ditu. Oso esker onekoak dira. Askok emozionalak dira. Hiru urtean egin dugu, eta jarraitzeko asmoarekin.

Zerk betetzen zaitu plazetan?

Giroa egoteak, bertsozaleak egoteak eta saioa egindakoan jendearengana iristeak. Horregatik, jaialdietan publikoa ikustea gustatzen zait. Hala badakizu nola erreakzionatzen duen eta bertsoa iritsi den bere tokiraino. Hori lortzen baduzu etxera pozago etortzen zara.

Aita Joxe hazi zen auzoan bere oroitarri bat dago, eta bisita egin behar zio-la eta Azpeitira joan behar zuela aipatu zion Iñaki Murua Bertsozale Elkarteko lehendakariak Sebastian Lizasori. Ailegatu zirenean, Sebastiani ez zion kasurik egin. Aitari hasi zen kontuak erraten: «Kai-xo, Joxe. Aspalditik zor nizun bisita hau eta etorri naiz. Hor zauden, zeure txapel eta guzi, dotore asko. Lehen ere bizitzan zehar hamaika aldiz jantzi eta erantziko zenuen txapela, baina ez zenion txapeldun bati inoiz txapelik jantzi. Baina ondorengoak utzi dituzu eta bat txapelduna, gainera. Eta aurten hau izango da txapeldun berriari txapela jarriko diona».

Pasa-pasa eginda gelditu zen Sebastian. «Inoiz ez zitzaidan burutik pasa halako gauzarik egin behar nuenik ere. Zeharo emozionatu nintzen eta pixkanaka-pixkanaka sustoa irensten joan behar. Gutxiren esku dagoen ohore bat da. Ikusi nuen aita-rentzat esker on bat zela, niretzako bakarrik ez. Lizasotarren familiarentzat zela ohore hori eta ez nuen dudarik egin baiezkkoa esateko».

Bi semeak bertso munduan dituzu. Beñatek txapelketan parte hartu du. Nola jarraitu dituzu saioak aita gisa?

Neu nenbilen garaian ez nuen pentsatzen aita zer sufritu behar zuen, baina Beñat ibili den garaian niri tokatu zait sufritzea. Beti gehiago nahi duzu.

Nola ikusi dituzu semea eta bertso lagunak?

Nik uste dut saio politikak izan direla, gertatzen dena da ez dudala entzun saio bat osoa, borobila. Ale bikainak asko izan dira,

baina jaialdi osoa ez dut uste inon lehertu denik.

Zein oroitzapen gordetzen dituzu txapela irabazi zenuen 1986ko txapelketa hartatik?

Orduan Bertsolari Elkartea zenak antolatu zuen lehenengo aldiz. Apustu handia zen. Inoiz ez

zen Belodromoan halako ekitaldirik egin. Puntuaketa bistan ematen zen lehenengo aldia zen. Antolakuntza aldetik oroitzapen onak ditut, talde lan asko egin zelako eta behar genuen laguntza guztia izan genuelako. Finalera lasai samar joan nintzen goizetik eta arratsaldeko

kartzelako lana etorri zenean, bertsolari denak pasa zirenean txapela niretzako zela aurkezleak baino lehenago esan zidan publikoak. Poza eta sustoa sentitu nituen. Amuriza eta Lopategi ziren faborito, hirugarren izenik ez zegoen. Sustoak susto txapel eta guzti etxera!

GENERO GOGOETAK

Bertsolaritza gorpuzten duten bazterreko gorputzak

Aurten, Zumaia-ko saioan, Miren Artetxek eta Nahikari Gabilondok hoteleko garbitzaileen azaletik abestu zuten, zirudienez, Lizasok garai batean emandako emakume idealaren deskribapenarekin gogaituta, deseroso eta haserre. «Hotelekoak bukatzen dira eta etxeokak hasi», abestu zuen Artetxek. Eta Gabilondok bukatu zuen bertsoaldia: «Hemen gutxitxo ko-bratzen degu ta han askoz gutxiago».

Bertsolaritza aldatuz doa. Agertu dira, aurtengo Bertsolari Txapelketa Nagusian, hilekoari buruzko bertsoak, zaintza lanak proposatu dituzten gaiak, gorputz transgenero bat txalotu duten esku-ahurrak. Bertsolaritza asko aldatu da, 1452ko foru-legeek profazadoreak –emakume bertsolariak– bertsotan egiteagatik zigortzen zituztenetik, baita ere 1993an Lizasok kantatuta-

ko bertso hartatik. Aldatzen ari da, nahiz eta hogeiei epaileetatik bost izan diren emakumeak, nahiz eta zortzi finalistetatik bakar-ka izan emakumea.

Lau bertsolarik feminismotik behatu dute txapelketa, eta euren iritzia orriotara ekarri: Miren Artetxek, Odei Barrosok, Ane Labakak eta Jon Martinek. Guztiek esan dute aurtengo Bertsolari Txapelketa Nagusia «mu-

garri» ez bada «aurrerapauso handia» izan dela, baina Txapelketa Nagusia plazetatik datorren lanketaren emaitza besterik ez dela.

Jone Miren Hernandez EHUKo antropologia irakasleak ere aztertu du BECerako ibilbidea. Berak ñabartu du ez zuela «mugarri» hitza aipatuko, baina «elementu interesgarriak» agertu direla dio.

 **BERTSOLARITZA /** Maddi TXINTXURRETA AGIRREGABIRIA

Baserriko emakumeari. Gai hori eman zion Nikolas Zeberio gai-jartzaileak Sebastian Lizasori 1993ko abuztuan, Goiazko pilotalekuan, berrehun-bat entzuleren begiradapean. Mikrofonora hurbildu zen Lizaso: «Kaletarra naiz baina badaukat baserriko informea/ etxeokandrea izaten dala beti fina ta xumea/ atsedeen gutxi eta gainera ia urtero umea/ benetan diot, sufritu bat da baserriko emakumea/ bera da ama, etxeokandre, langile ta neskamea».

Horrez gain, esan du aldaketarako motorra emakumeak izan direla: «Nik aldaketa bakarra azpimarratuko nuke: baztertuta zeuden zenbait subjektuk, norbanakoak zein kolektiboak, beraien egoerari buelta emateko adierazitako gogoak. Hau da: emakume bertsolarien egoerari buelta ematen hasi zaio, emakumeek hori bultzatu nahi izan dutelako. Prozesuan, gizonezko asko izan dira bidelagun; eta, hainbatetan, testuinguruak ere lagundu du. Baina oinarrian emakumeen gogoak eta lana dago».

Jon Martinek uste du azken txapelketa «historiara» pasatuko dela «generoak bertsolaritzan izan duen eraginagatik». Hala ere, datuekin geratzeko arriskua aipatu du: «Lehenengo bueltan emakumeek sekulako egurra eman ziguten gainontzeko guztioi. Bigarren bueltan ez da errepikatu, eta ez dut uste kontrako irakurketa egin behar-ko litzatekeenik. Ez zaie hainbeste datuei begiratu behar, bai-zik eta globaltasunari».

2017ko Txapelketa Nagusiak begirada asko hartu ditu bere gain, sare sozialen eraginagatik. Hernandezek, baina, gogorarazi du txapelketak «eragina» duen arren, «lau urtean behin» gertatzen dela: «Txapelketak fokua jartzen du hainbat gaitan eta tentsio bat sortzen du, tentsioa iturri edo baliabide sortzaile gisa ulertuta. Baina egun, tentsio fokua asko ditugu inguruan, txapelketa horietako bat da, inportantea, baina baita mugatua ere».

BTN17KO IKASGAIAK

«Aurrekoan entzun nion Jone Miren Hernandezi, duela lau urte arte jartzen ziren gaiak egunkarietako titularretan agertzen direnak zirela, maiuskulaz idazten den politika horri buruzkoak. Iruditzen zait orain aldaketa

Jon Maia eta Nerea Ibarzabal Amurrioko saioko une batean.
Jaizki FONTANEDA | ARGAZKI PRESS



egon dela feminismoak esaten duen bidetik, pertsonala politikoa dela; orain leku egiten zaio minuskulaz idatzitako politika horri. Gaiak askoz egunerokoa-goak dira, lurtarragoak edo uki-garriagoak», iritzi du Ane Labakak.

Miren Amurizak gorputz arrotz, arraro bat taularatu zuen Zallako kartzelakoan, 82 urteko emakumearena. Argazkia atera zion bere buruari: «Aluan ez dut ilerik, besapeetan bi trabes», zioen Amurizak. «Niretzat ederra bada, besteentzat zergatik ez?».

Zer esan Maialen Lujanbioren Irungo kartzelakoari buruz? «Gizona eta andrea nauzu, ez andrea ez gizona/ nire inon ez egon nahia ote da zure ezinegona». Bertsoaldiak tauletan agertzeko aukera gutxi dituen gorputz bat taularatu zuen.

Nerea Ibarzabalek hilekoari buruz abestu zuen Amurrioko kartzelakoa, eta puntu honekin bukatu: «Iruditzen zait ez daukadala honetaz zertan lotsatu».

Hiru bertsoaldiek, zeintzuek gorputz itsusi, arraro eta zikinak bihurtzen dituzten protagonista, mikrofonotik hitz egiteko aukerarik ez duten ahotsak haizatu zituzten. Eta bertsolariek abestu zuten biktimaren papera hartu gabe, bazterreko gorputzak maitatuz, usainduz, biluztuz. Eta galdera antzekoa planteatu zuten hirurek: «Ni nire gorputzaz harro banago, zuri zergatik egiten zaizu arrotz?».

Bertsoaldiok minuskulazko politika horren gainean egindako lanketa berresten dute. «Txapelketa honetan genero ikuspegia txertatzeko lanketa egin dela nabarmena da. Deigarria izan da, esaterako, gaiek zaintzaren inguruko gatazkak edo emakumeen prekarietatea plazaratu izana. Bestalde, nabarmen igo da gai irekietan genero gaien presentzia. Alde horretatik oso es-



Maialen Lujanbio, Irungo saioan. Jon URBE | ARGAZKI PRESS

kertzekoa da bai gai-jartzaile taldeak eta bai bertsolariek egindako ahalegina», esan du Miren Artetxek.

Zaintza gaiei begira, agertu dira oholtzan lagunekin bizitzera joan nahi duen Downen sindromea duen ume baten gurasoak, gurasoak zaintzeko txandak egiten dituzten anai-arrebak, agertu zen Baigorri Alai Martin bost egun desagertuta daraman neskaren amarena egiten, alabari gau beltzetan gerta zekiokenarekin arduratuta: «Beldur askotara egin izan dit buruak alde/bortxatuta hil dutela pentsatu izan dut halare./ Neskok beti beldurrera kondenatuta al gaude?».

Maddalen Arzallusek Tolosan abestu zuen gizonezko gudari baten alabaren bihotzetik, bertsotan askotan goraipatua izan den figuraren ifrentzuari buelta

Artetxek, Barrosok, Labakak eta Martinek diotenez, aurtengo Txapelketa «aurrerapauso handia» izan da, baina plazetatik datorren lanketaren emaitza besterik ez da

«Iruditzen zait orain aldaketa egon dela feminismoak esaten duen bidetik, pertsonala politikoa dela; leku egiten zaio minuskulaz idatzitako politika horri», dio Ane Labakak

emanez: «Herriarentzat ona zen, baina, guretzat kalte izan zen».

Aipatu lanak txalotuak izan ziren, baina egon da bestelako sentsaziorik, Artetxeren aburuz: «Bada sentsazio bat, bat-batean denok garela feministak, gai guztiak direla guri buruz, eta ez direnean ere 'gure terrenora' ekartzen ditugula. Baina, besteen zaintza lanik gabe inor ez litzateke gai izango bertsolari izateko, ez gizon ez emakume. Bestalde, prostatari eta zakilei buruzko zenbat txiste egin ote ditugu... Hilekoari bakarkako bat eskaintzea justizia poetikoa baino ez da. Alta, badirudi orain balantza 'gure alde' jarri dela».

Bestalde, feminismoa oraindik ez dela bertsolaritzako bazter guztietara iritsi uste du Artetxek, «hutsuneak» daudela: «Feminismoaren diskurtsoa politikoki zuzena bihurtzen ari da txapelketan ere; alta, gutxi aipatzen da txapelketak berak nola eragiten duen genero-arte bote harremanetan, edo nola eragiten duen genero arteko botere harremanek txapelketan».

OHOLTZA

«Kristalezko sabaian kax-kax» egitera atera zen Miren Artetxe Durangoko saiora, eta bukaerako agurra bertso eskolako neskarri eskaini zion, askok nerabezarotan bertsolaritza uzten dutela eta: «Utzi ez utzi, segi ez segi, etengabeko borrokan/ errurik eta damurik gabe utz ezazu uztekotan».

Oholtzako nahiz oholtzapeko presioak aipatu ditu Artetxek, maiz emakume nerabeak bertso-laritzatik aldentzerainoko inda-

rra egiten dutenak: «Bertso afari askotan, lehen plateretik azken burukora zure eguneroko biziarekin zerikusirik ez duten gaiez hitz egiten da. Eta moldatu beharra daukazu, ohartzen baitzara zure kezkek ez dutela interes handirik. Mundu arrotz batean bizirauteko estrategiak garatu behar dituzu».

«Ez gaituzte fokupean egoteko, espazio publikoa gureganatzeko eta hitza hartzeko hezi», iritzi du Artetxek. Espazio publikoak gizonezkoek okupatzen dituztela dio, «eskolako jolaslekuan izkinak» egokitu zaizkiela neskei, «erdigunea» mutilena dela. Bertsolaritzan berdin gertatzen dela dio: «Neska batek bere gorputza eta ahotsa oholtzara igotzen dituenean, ez da baldintza 'normaletan' taularatzen. Hori egiteko, indar eta gogo handia behar da. Baita gaur egun ere».

Ane Labakak hari berdinetik egin du tira: «Bertso eskoletan lanean ari naizela, gazteekin eta umeekin ikusten dut askoz lizentzia gehiago ematen dietela mutilek euren buruari jendaurrera ateratzeko, trabatu behar badute trabatzeko; eta, neska batendako, jendaurrera aterata hanka sartzea pasa dakioken okerreña da».

Batez ere nerabezaroan, baina baita gerora ere, oholtza haitz puntadun agertzen zaiela emakume bertsolariei, oztopoak oztopo eskalatu beharrekoa; eta, behin goian, lasaitua hartzetik urruti, bertigoa ematen diela amildegiaren alturak, kristalezko sabaia-aren isla bihurtzen baitzaie zorua, garden eta labainkor, eta amiltzearen beldurrak,

bertsotan hanka sartzearenak, aise herdoildu dezake bertsolariaren kantua. Gauzak horrela, nola liteke posible emakume bertsolariak ohol-tza hartzea, eta, are, ahots dardartirik gabe tenplea mantentzea talaia ezegonkor horretan, Txapelketa Nagusiko saio bateko lehen bertsosaldian bertan sudurra odolez hasita ere? Bada, batik bat, emakume bertsolariek gaiaren inguruan egin duten «lanketa, lanketa, lanketa eta lanketa»-ri esker, lau aldiz aipatuta, elkarriketatutako lau bertsolarien ahoetatik.

Lanketa horren kargu hartu dute bertso eskola batzuek, nesken ahalduztzean begirada jarritan. Dena den, bertsolaritzaren munduan genero ikuspegia lantzen ari bada ere, gainontzeko esparruetan –familian edo hezkuntzan kasu– prozesu bera ematea beharrezkoa dela uste dute Labakak eta Artetxek, bertso eskolek ezin baitute lanketa horren pisu guztia euren gain hartu.

MASKULINITATEAK

2017ko Txapelketa Nagusian inoiz baino emakume gehiagok parte hartzeaz gain, gizonezkoek euren teoria eta praxia moldatzeko aukera izan dute. «Maskulinitate hegemonikoarekin deseroso sentitu garenoi sekulako aukera ireki zaigu gure benetakako 'ni'-a erakusteko », esan du Jon Martinek. «Ez da eredu maskulino bakarria bizitzen gaur egungo ohol-tzan, eta errango nuke: eskerrak!», dio Odei Barrosok.

Ohol-tza gainekoa egurasten hasia da gizontasun hegemonikoaren ertzak zabalduz, eta azalpen erraza dauka horrek, Barrosoren aburuz: «Ohol-tzakoa biziki lotuta dago ohol-tzapekoari; bertsolariak aldatzen doaz gizartearekin batera». Hau da,



Belaunaldi gazteen presentzia igartzen da publiko artean txapelketan. Jaizki FONTANEDA | ARGAZKI PRESS

bertsolariak ez direla salbuespen, gizartearen isla dela bertso-tara ekartzen den hori, batzuetan askoren lanketa baino urrutiago doana, besteetan motz geratzen dena.

«Txapelketa sortzeko tresna da, baina baita ispilu ere», esan du Jone Miren Hernandezek. «Mahai borobil bat da, bazkal osteko mahai bat, eta hor agertzen diren gaiak gizartean dauden gaiak dira nagusiki. Iritzi ezberdinak agertzen dira, eraldatzaileak izan daitezkeenak. Bertsolariengan jartzen dugu fokua, baina gu denok gaude ohol-tza horretan, komunitate gisa».

Ohol-tza gainekoa egurasten hasia da gizontasun hegemonikoaren ertzak zabalduz. Azalpen erraza ematen du Barrosok: «Bertsolariak aldatzen doaz gizartearekin batera»

Martinen ustez, orain «gizonezkoak» hasi dira «ohol-tza gainean ezerosotasun bat» sentitzen: «Aukera daukagu gure jarduna berrikusteko eta nola kokatu nahi dugun birpentsatzeko»

Emakumeak ohitu egin behar izan dira gizonezkoekin bertso-tan aritzera, oraindik ere gutxiengo izan ohi baitira plaze-tan. Alta, badira geroz eta emakume gehiago ohol-tzan, eta gizonezkoek ere ohitura desberdinak hartu behar izan dituzte emakumeekin ohol-tzara irtete-an. Jon Martinen ustez, orain «gizonezkoak» hasi dira «ohol-tza gainean ezerosotasun bat» sentitzen: «Gizonezkoak aukera handi bat daukagu gure jarduna berrikusteko eta nola kokatu nahi dugun birpentsatzeko».

Ohol-tzan emakume eta gizonak aritze hutsak, ordea, ez du berez maskulinitate eredu birplanteazten Hernandezen iritziz: «Gizartean, oro har, gizonezkoak, emakumezkoak... batera aritzen dira; familian, lan munduan... eta horrek ez dakar feminitate eta maskulinitate eredu birplanteamendua. Ez dut zalantzarik aldaketak gertatzen direla eta hauek garrantzitsuak direla, baina zaila egiten zait modu orokorrean hitz egitea. Bertsolariak estralurtarrak

iruditzen arren, lurrekoak dira, besteok bezala».

Bertsolariak lurtarrak direnez gero, lerraldiak izaten dituzte. Txapelketa Nagusiak fokupean hartzen ditu, eta entzuleak zorrotz ditu belarriak; Jon Martinek aipatu «hiperkritikotasuna» ez tentsu. Esaterako, Martin eta Agin Labururen Segurako ofizioak zeresana eman du.

Pintorearen papera egokitu zitzaion Labururi, eta paretako koloreekin konforme ez eta etengabe kolorez aldatzea desio zuen etxejabearena Martineri. Puntu hauek bota zizkion etxejabeak Labururi: «Radio Olé jarritan ibiltzen zera maiz/ zu joaterik ez dut nik desio garaiz/ egia da zurekin enamoratu naiz». Eta pintoreak horrela erantzun zion: «Hoi nola esaten dek zer dek «gay» edo «gay»/ etzekiat Jon baino nik hori ez diat nahi/ kamiseta horrekin pentsatzen nian bai».

Jon Martinek Bastidako saioan jantzita zeraman kamiseta arrosak errealtatea eta fikzioaren langa zeharkatu zuen, eta, neurri batean, Laburuk kantatutako bertsosaldiak ere bai. Pertsonaia eta pertsona nahastu zirela iritzi du Martinek: «Pertsonaiak esaten duena batzuetan pertsonari egozten zaio, eta uste dut kasu honetan Aginen pertsonaia zela hizketan ari zitzaidana, neronek ahalbidetu niola pertsona eskuindar edo zaharkitu samar bat izatea Radio Olé entzuten ari zela esan nionean. Interesgarria iruditzen zait, hala ere, entzule-riaren erreazioan lupa jartzea. Horrek zuzenean eragingo dio bertsolariaren jardunari».

Sare sozialek sekulako oihartzuna eman diote Txapelketa Nagusiari, eta Agin Laburu eztabaidaren erdigunean izan zen Bastidako finalaurrekoaren ostean. Horrek bere jarduna maiztu zuela uste du Jon Martinek:

«Esango nuke bertso horri buruz hitz egin den guztiak ziurtasun eza sortu ziola, eta baliteke Donibane Lohizuneko saioan horrek eragina izatea».

“Gezurra erran duzu, baina merezi izan du”. Donibane Lohizuneko kartzelako gaiak askorako eman zuen. Igor Elortza eta Julio Soto epailearen aurrean eseri ziren, ikusi ez zuten bortxaketa bat ikusi zutela esatera. «Gezurra ere esan liteke egia ez bada sinesten», zioen Elortzak; «ta horri esker errudun bat gaur sartuko dute kartzelan», esanez amaitu zuen bigarren bertsoa. San Fermin jaietan emakume bat bortxatu zuten bost gizon salatu zituen Julio Sotok: «neska bakarti ahulari» abestu zion, esanez «bost gizasemeak» ikusi zituela: «Nik uste neska gaixoak hainbeste merezi dula».

Gezurra esan zuten biek, Sotok abestu bezala «asmo on bat zela tarteko», baina bertsoaldiak aski kritikatuak izan ziren gaiari emandako trataeragatik. Pertsonaia heroiko eta salbatzailearen azalean jarri zirela, gurasokeriaz gainera, gizontasunaren pedigria zut.

Odei Barrosok bertsoon inguruko iritzia eman du, bertsolarien «pertsonalizazioa» ez duela atsegin azpimarratuz aurretik. Berak uste du bertsoaldi horiek ez luketela Elortzak eta Sotok generoaren inguruan egin duten lanketa zalantzan jarri behar, Donibane Lohizunen kantatutakoak «hogei segundoko» erabakiak direlako.

Martinek aipatu du kantaldi batzuetan «subkontzienteak» eragina duela, eta Barrosok ñabartu du bertsolariari askotan akatsek «ihes» egiten diotela gai bat «aurrez aski gogoetatua ez duelarik». Hala ere, Martinek dio ez dela ahaztu behar bat-batekoaren eragina: «Bat-batean ari gara, eta hanka sartzen dugu



sarri. Batzuetan pentsatzen dugunaren kontrakoa esaten bukatzen dugu. Ez zait gustatzen bat-batekoaren irakurketa idatzizko eta patxadatsua».

UMOREA

Bat-bateko bertsolaritzak bertsolaritzaren beraren jurisprudentziatik egiten du tira maiz. Izan daiteke bertsolariak ez duelako kantatzera igo aurretik bere erregistroa zabaltzeko lanetarik egin, baina, batez ere, badaudelako gai jakin batzuk bertsotan aspalditik normalak izan direnak, onartuak. Eta badi-ra beste gai batzuk aurrekaririk ez daukatenak, normaltasunari bultzaka abestu behar direnak oholtzan tokia hartzeko.

Adibidez, zergatik jo zen transzendentaltzat Nerea Ibarzabalek Amurrión hilekoari buruz abestu izana, hilekoa berez normala bada eta munduko gorputzen erdiek bizi badute? «Emakume bat omen naiz orain ta edozertako prest nago/ orduan nola senti naiteke inoiz

Epaile taldea, lan betean. Isileko lana eta ordain txarrekoa izan ohi da epaileena, baina behar beharrezkoa txapelketan. Jon URBE | ARGAZKI PRESS

baino txikiago?». Gaiaren traterak berak erakusten du, seriotasunetik abestu beharrak, esaten dena intimoa dela, eta intimoa dena abesteak ausartasuna eskatzen duela. Zergatik sentitzen da «inoiz baino txikiago» lehen aldiz izarapetik hilekoa usaintzen duen neska? Izarapeko gaia delako.

Bertsolaritzan bada jurisprudentzia bat, beraz, baldintzatzen duena zer abestu eta zer ez, eta umorearen erabileran maiz ikusten da. «Bertsotan mila txiste egin dira gizon lodiei edo burusoilei buruz; gizarteak onartzen die gizoni burusoil edo lodi egotea. Baina, emakume baten itxura fisikoari buruzko broma bat egitea, eta, gainera, publikoki, gizartean onartua ez dagoenez, ez da umoretsua. Justu kontrakoa, deserosoa da», azaldu du Ane Labakak, zeinak Mintzola Ahozko Lantegiak eta EHUKo Mikel Laboa Katedrak esleitutako saria jaso berri duen 2017ko Bertsolari Txapelketa Nagusiko umorea aztergai hartuta, genero ikuspegitik ikerketa lan bat egiteko.

«Aurretik idatzitako legeen gainean idazten dira hurrengoak, eta nik uste umorearekin ere hori pasatzen dela: aurretik sortu den umore horren gainean ari gara aldiro, publikoarekin kode eta erreferente konpartitu batzuen gainean. Pisu handia dauka orain arte egindako umoreak, oso zaila da horrekin apurtzea», dio Labakak. Hala ere, bertsolariak dio «beste umore mota bat» sortzen ari dela, baina dena dagoela «esperimentatzeko». Formatu feministako bertso saioak aipatu ditu, «baterreko plazak» izenpetzen dituenak, edo Ahalduntze Bertso Eskola, umorearekin jolasteko espazio eroso gisa.

Aurtengo Txapelketa Nagusian umoreak «oso tarte gutxi» izan duelako kexu da Labaka, baina bada adibide mamitsurik. Zortziko txikian abestu zuten Miren Amurizak eta Odei Barrosok. Barrosori turismo gidariaren papera esleitu zitzaion; eta Amurizari, turismo gidariaren ondotik mugitzen ez den jubilatuaarena. «Ez duzu ko-bratuko/ laguna badaikit/ beti nere ondoan/ egoteagatik» abestu zuen Barrosok. Eta Amurizak erantzun: «Ondoan ez banauzu/ euki nahi jo ta ke/ zure gainean pozik/ jarriko nintzake». Batek baino gehiagok pentsatu zuen orduan: Miren Amurizak kantatu duena gizon batek esan balu? Odei Barrosok azaldu du: «Gizonezko batek egin balu ziur aski ez litzateke hain dotore geldituko. Horren inguruan eztabaida izan nuen lagun batekin saioaren ondotik, eta esan zidan: 'hori zuk egiten baduzu, ez du balio'. Agian ez du balio, eta horregatik nik beste zerbait eginen dut. Emakumeak zenbat aldiz egon dira behartuta beste umore klase batera jotzera? Uste dut balantza egin behar dela».

TXAPELKETA ZENBAKITAN

Bertsolarien adina gora
doa, bereziki finalean

Txapelketa sa-soian puntuei adi egon ohi gara, baina hemen bertze zifra batzuei errepara-tu diegu, bertze errealtate batzuk ezagutzeko, azken bost txapelketen eboluzioaz ohar-tzeko, eta, azken batean, pun-tuazioa ere hobeki ulertzeko.

2001etik 2017ra arteko txapelketak erreparasatuz, ikusten da urtez urte zahartzen doala partaideen ba-tez besteko adina, bereziki finalean. 2001ean 27 urte-koa zen eta aur-ten 38koa. Lurralde-tasunari




erreparatzen badiogu, gipuz-koarrak dira nagusi urtero, na-barmen, eta ondotik bizkaita-rrak. Nafarroak eta Arabak eutsi egiten diote eta azpima-rratzekoa da lapurtarren mai-la. Aurten bostek parte hartu dute eta bik BECen abestuko dute, horietako bat gaurko txapelduna da, Amets Arzallus.

Generoari dagokionez, aur-ten aunitz aipatu da zenbat emakume egon den lehian, baina datuak behatuta ohartuko gara 13 emakumek parte hartu dutela, 2013an bezalaxe. Aldaketa da gehiag- iritsi direla finalaurrekoetan. Gorakada hori ez da finalean is-latuko. Gai-jartzaile gehie-nak emakumeak dira (13 emakume eta 5 gizon); epaileen artean, ordea, alderantzizkoa gertatzen da. 5 emakume eta 15 gi-zon dira. Gai-jartzaile talde-an ere gizonak gailentzen zi-ren 2001ean, 2005ean parean zeuden eta geroztik gehienak emakumeak dira, batez ere aurten. Epaile taldean, berriz, andreak ez dira neurri berean sartu. Eta horrek, denak beza-la, bere eragina du.


Gai-jartzaile gehienak emakumeak dira, 13 emakume eta 5 gizon. Epaileen artean, ordea, alderantzizkoa gertatzen da: 5 emakume eta 15 gizon dira.

Parte-hartzaile kopurua, generoaren arabera




Parte-hartzaile kopurua, lurraldetasunaren arabera


2001ean




2005ean




2009an



2013an



2017an



Bertsolariak,
adinaren arabera

2001ean

Txapelketako batezbestekoa:
27,38 urte
Finaleko batezbestekoa:
27,62 urte
Txapelduna:
40 urte

2005ean

Txapelketako batezbestekoa:
28 urte
Finaleko batezbestekoa:
30,25 urte
Txapelduna:
44 urte

2009an

Txapelketako batezbestekoa:
29,93 urte
Finaleko batezbestekoa:
34,12 urte
Txapelduna:
33 urte


2013an

Txapelketako batezbestekoa:
32,76 urte
Finaleko batezbestekoa:
34,50 urte
Txapelduna:
30 urte

2017an

Txapelketako batezbestekoa:
34,69 urte
Finaleko batezbestekoa:
38,37 urte

«Psikologikoki prestakuntza handia exijitzen du txapelketak»



Bixente ELGORRIAGA

AMETS ARZALLUS ANTIA

Lau aldiz irabazi du Nafarroako Bertsolari Txapelketa eta hirutan Xilaba Bertsolari Xapelketa. 2013ko Bertsolari Txapelketa Nagusia irabazita, Euskal Herriko txapelduna da. Laugarren finala du Txapelketa Nagusian.

Jon GARMENDIA

Ma ke an bizi da Amets, eta han ja so gaitu abegikor igande goiz batez, larunbateko bertso saiotik goizaldean etxeratu ondoan, Euskal Herriko punta batetik besterako bidean orduak pasa eta gero. Finala garrantzitsua baita bereztat, baina garrantzitsuena bertsoan egin eta egiten jarraitzea da, puntuazio handia lortutako bertsoak bezainbesteko distira duelako edonork edonon txalotutako bertso bakoitzak.

Lau urtez zurea izan da Euskal Herriko txapela...

Txapela jasotzea eta eramatea tokatu zait, eta urrundik zetorren, bide luzea eginda; [Jon] Lopategi ikusten nuen nik, Sebastian Lizaso, Andoni [Egaña] gero, eta Maialen [Lujanbio] azkenik. Pribilegio bat izan da, Korrikan lekukoa hartu eta azken metroak korritzeko aukera bezala. Baina oso presente eduki dut beti neure lorpen pertsonala eta espazio propioa baino, denon bideko zerbait dela txapela, eta honek oso elegantea dirudi kontatzeko, baina hala sentitu nuen egiazki barnean. Eta BECen egindako lanarekin gustura gelditzen banaiz, eta lekukoa beste bati luzatu behar badiot, oso gustura egingo dut hori ere.

Baina txapel historikoa izan zen, Ipar Euskal Herrirako batez ere. Lehen lapurtarra izan zinen txapela janzten...

Erroak eta adarrak nahasiz gero, ni inon ez naiz arrotz, ez Iparraldean eta ezta Hegoaldean ere; Euskal Herri osoan etxeko sentitzen naiz. Eroso ibili naiz beti, bai tokietan eta baita euskalkietan ere, gozo sartu direla-

ko nire ahora eta belarrira, eta horrek nortasunaren geruzetan eragiten dit. Ni darabildan euskararen arabera naiz; Iparraldekoa naiz izatez eta hori beti defendatuko dut, baina bizitzaz zoritxarreko muga horren alde guztietakoa naiz. Nik gustura hartzen dut duela lau urte txapela Iparraldean kokatu izana, eta horrek Iparraldeari bisualizazio pixka bat emateko balio izan badu, gure errealitate linguistikoa zein nekeza den eta zein borroka mailan gauden erakusteko balio izan badu, eta, batez ere, Hegoaldeak espazio gehien nola hartzen duen eta espantu gehien euskaldun izate honetan, horri kontzientzia pixka bat emateko balio izan badu, saiatuko naiz hori defendatzen eta baita berriro hala izan dadin ere. Hortik harago neu pertsonalki non kokatzen naizen denboraren joanean, hor, galdu egiten naiz, inozentziatziaz bizitzen dut hori, eta errazago egiten zait nire burua definitzea besteen begi eta ahotik.

Txapelketa bertsozale bezala lehenik, eta bertsolari bezala gero.

Memoria dudanetik jarraitu dut txapelketa, final guztiak oroitzen ditut. 1986koa ez, 3 urte bainituen, baina 1989koa bai adibidez, aita-eta telebistan non ikusi zuten. 1993an Belodromoan nengoen, eta 1997an ere bai. 2001ekoan kantatu egin nuen baina ez nintzen finalera sartu, eta gerokoetan finalean kantatu dut. Etxerako udazken berezia izan da betidanik Euskal Herriko Txapelketa, lau urtez behin oso giro berezia sortzen da, aita-amak ia saio guztietan egoten dira, eta erranen nuke bizitzeko modu bat dela, modu polit bat, milaka gauza sortzen dira, saio aurreko balorazioak, saio ondokoak,



gaien interpretazioa eta irakurketa, joko bat denaren inguruan hausnarketa eta eztabaida, gure etxeko mahaian oso presente dago.

Baina plaza ere hor dago...

Noski, eta ni saiatzen naiz plaza ahalik eta hobekien zaintzen, gu plazarako eta plazatik bizi gara. Ez dut ukatuko txapelketa gustatzen ez zaidanik, tentsio horrek baduelako erakargarritasun puntu bat, eta lau urteko edo bi urteko txapelketak nire burua antolatzen laguntzen dit, ganbara garbitzen nolabait. Baina ganbara garbitze hori plaza-rako da, aitzakia bezala hartzen dut txapelketa, aleka-aleka zer pentsatua sortzen duten bertsoak uzteko han-hemenka.

Aurtengo txapelketan saio barrean kantatzeak nola eragin ditu? Zurean kontzentratuta egon zara txandaren zain edo besteei begira?

Askok galdetu didate ea hori hobe edo okerragoa den. Nik abantailak eta desabantailak ikusten dizkiot, baina, beste erremediorik ez dagoenez, hala egin behar dela jakitea da abantaila. Andonik ongi kudeatzen zuen hori, Maialeni agian goizean kosta egin zitzaion hastera, baina gorantz egin zuen gero; egin ez dudana gauza bati buruz hitz egitea ez dut gustuko, momentuz saiatzen naiz presioa kentzen, nire martxan nabil, saioak normaltasunez egin ditut, eta guztia erlatibizatzen aritu naiz. Bestalde, ahal bezain goizen saiatu nintzen txapelketa nire baitan barneratzen; Baigorriko lehen saiora joan nintzen, eta ahal izan ditudan saio guztiak jarraitu ditut zuzenean. Oso barneratuak dauzkat txapelketako sintonia, bizipenak, eztabaidak eta saio bakoitzak eragin dizkidan kezka eta pen-

tsamenduak; sare sozialetako eztabaidak soilik bizi ditut distantziatik, beste guztia hurbiletik jarraitu dut. Etxetik ere jarraitu dut txapelketa gainera, arreba Maddalenek kantatzen zuen eta erran behar dut entzule urduria edo sufritua izan naitzela; ez da kantatzen duzunean bezalako korapiloa, baina bai estuagoa.

Beraz, orokorrean nola ikusi duzu aurtengo txapelketa, halako finala espero zenuen?

Finalera begira uste nuen aldaketa gehiago egon zitezkeela. Txapelketako bertsolari guztiak ezagutzen nituen, noizbait haiekin kantatua nuelako, beraz, ezusteko gutxi izan nezakeen alde horretatik. Bertsolari horiek beren maila agertu dute gainera, batzuk indar handiarekin ikusi ditut, bai final laurdenetan eta baita finalerdietan ere, hori bai, ohartu naiz zein zaila den tentsioari eustea hila-bete batez; psikologikoki prestatuntza handia exijitzen du txapelketak, saiotik saiora tentsio horri eustea ez baita erraza, eta beste lehia batzuetatik esperientzia dakargunok beharbada abantailatxoak daukagu momentu horretan.

Baina aldaezina, biziki zurruna dirudi finalak...

Finaleko kartela ikusita hausteko zaila den blokea dela ohar-tzen zara. Gero, txapelketa antolatzeke moduak ere bere eragina du, noski, baina hor dagoen belaunaldia, lauzpabost urteren bueltan dabilena, nik ezagutu dudana belaunaldirik fuertena da. Ohartu gainera, belaunaldi horrek bertsolari izatearen sentimendua jaso zuela [Sebastian] Lizaso, Peña [Anjel Mari Peñagarikano], [Andoni] Egaña... eta zaharragoengandik, Joxe Agirre bezalakoak.

«BECen egindako lanarekin gustura gelditzen banaiz, eta lekukoa beste bati luzatu behar badiot, oso gustura egingo dut hori ere»

«Oso barneratuak dauzkat txapelketako sintonia, bizipenak, eztabaidak eta saio bakoitzak eragin dizkidan kezka eta pentsamenduak; sare sozialetako eztabaidak soilik bizi ditut distantziatik»

Eta haientzat plaza oinarria zen, plaza bati ezezkua ematea pentsaezina, izugarrizko zentralitatea hartzen zuen bertsoak haien bizitzan, eta beharbada garaiak aldatu egin dira. Hor gaudenak, Sustrai [Colina] eta ni ia gazteenak gara, [Beñat] Gaztelumendi baita gu baino gazteagoa den bakarra. Baina belaunaldi horretan sartzen dira Maialen [Lujanbio], [Aitor] Mendiluze, [Aitor] Sarriegi, [Igor] Elortza eta Unai Agirre. Jon Maia bederatzigarren izan da, ia finalean zegoen berriro, [Jesus Mari] Irazu eta Unai Iturriaga ere hor egon dira lehena-go, eta kontatuz gero bertsolari belaunaldi horrek zenbat final dauzkan... Izugarria da, horren gainetik pasatzea oso zaila da.

Garaiak aldatu egin direla erran duzu. Agian gizartea aldatu egin da, beharbada egoera politikoa ere bai. ETA armagabetu den urtea da hau. Uste duzu horrek aldaketa ekarri duela gaien edo kantaeraren aldetik begiratuta?

Azterketa bat egingo bagenu, bai gaitegia eta baita kantatu denaren aldetik, nik uste dut txapelketa bakoitzak garai baten testigantza zuzena emango lukeela. Bertso bakoitzak garaia-aren lekukotasuna eskaintzen du, eta bertso horien multzoa hartuta irakurketa politiko bat edo interpretazio soziala egin liteke, gizartean puri-purian dagoena azalduko baita. Aurtengo txapelketan gatazka deitzen dugunari lotutako gaiak presentzia galdu dute, seguruenik beste angelu batzuk egon dira, interesgarriak direnak dardarik gabe, gatazka horren inguruko bestelako gatazkatxoak, edo egunez egun bizi ditugun arazoei lotuagoak. Agian modu terrenalagoan jardun izan da gai batzuei buruz eta ez hain

modu epikoan. Gatazka armatuak espazio politikoaren eztabaidan zentralitatea zeukan lehen, eta orain periferikoago bihurtu da, eta horrek zuzenean eragiten du bertsotan ere. Hori benetan normala den, sango den, edo kezkarria den, hori da sakoneko galdera nire ustez; eta hor badiot nire zailantzak. Agian batzuetan erakusten du bake prozesu hau nola dioan, eta zenbat armarekin gelditzen ari garen debate politikoan borrokatzeko. Eta gauza batzuk ahanzturan erortzen ari dira, nahiz eta egunerokotasunean sufrimendua bizi-bizia izan eta konpondu gabeko gauza asko egon. Nik uste armagabetzea pauso inportantea izan zela Euskal Herriko bake prozesuan, eta eman zen moduagatik batez ere; modu bihurri hori oso interesgarria izan zen, armagabetze zibil hori. Baina horrek esan nahi badu gure kontzientzia armagabetzea ez goaz oso bide onetik nire ustez.

BECeko finalera zein intentsiorekin zoaz?

Gorputzaldiak asko eragingo du, egunak ere bai; duela lau urte zorionekoa izan nuen. Urteotan ez dut lortu deszifratzen misterio hori, batzuetan erraz aritzea bertsotan eta besteetan lotuago. Espero dut nire barneko korapiloak askatzeko aukera izatea; kontziente naiz hau ez dela liburu bat zabaltzea eta egindako lanketa guztia han agertzea. Badakit, gainera, orain iragar dezakedan guztiak preso har nazakeela, gero hura egin beharra izatea edo. Eta ez noa idatzitako liburu bat aurkezte- ra, orri zuri batekin noa eta ez dakit nolako boligrafoa edo arkatza edukiko dudana. Momentuz erran dezakedana da orri zuri bat presentatzen dudala, intentzioz eta motibazioz bete- a.

Ematen duen pauso bakoitza neur-tzea gustatzen zaio, kantatzen duen bertso bakoitzari autore sinadura zigilatzea. Dagoeneko arrasto propioa utzi du txapelketan, baina goitik beherako saioa egiteko gogoia dauka.

Bazirudien bestela izango zela, baina, azkenean, emakume bakar finalean.

Gaur egungo plazetan oso errealitate presentea da bai emakumeena, baita belaunaldi berriarena ere. Berezik emakume gazteek ekarpen oso propioa eta berria dakarte, plazan oso nabaria dena. Gainera, denak elkarren nahiko desberdinak dira eta hori oso aberatsa da. Normala den bezala, errealitate horrek espektatiba bat sortu du txapelketan, emakume desberdin horiek finalean ere leku bat izango zutela espero zen. Baina, ikusi denez, plaza gauza bat da, eta, txapelketa, beste bat. Oso aparte ez dauden bi genero desberdin dira. Aurten go finalak bi ezaugarri nagusi izango ditu; batetik, emakumeen presentzia lehengokoan geratuko da, eta, bestetik, belaunaldi gaztearen presentziarik ez da egongo.

Ez dut ondo bizi, ez zait gustatzen, emakumeei buruz kopurutan hitz egitea. Kopurutan hitz egiteak ez dio justiziarik egiten ez lehendik dagoenari, ez datorrenari, ezta jardunari berari ere. Badakit, era berean, esanguratsua litzatekeela emakume bat baino gehiago egotea, eta, gainera, plazaren isla izango litzateke. Baina zenbakitan hitz egitea ez zait ikuspegi egokia iruditzen, eta, mesede baino, kalte egiten du. Emakumeak multzo



Juan Carlos RUIZ | ARGAZKI PRESS

«Gustatuko litzaidake orain arte baino argiago, zorrotzago, alaiago egotea eta ni sentitzea bertsotan»

MAIALEN LUJANBIO ZUGASTI

Hernani, 1976. Arte Ederretan lizentziatua. Bertsolaria afizioz eta ofizioz. 2003an Gipuzkoako txapelduna. Seigarren final nagusia du; 2001ean eta 2013an bigarrena izan zen, eta, 2009an, txapelduna.

amagoia.mujika@gaur8.info

bezala tratatze hori ez dut ondo bizi, nahiz eta jakitun naitzen horren esangura garrantzitsua dela.

Historian Euskal Herriko txapela jantzi duen lehen emakumea zara. Ez zaizu gehiegi gustatzen hori nabarmentzea...

Aho biko labana da. Azkenean, emakumea zarela nabarmentzen bada, badirudi zure alderdi artistikoa gutxietsi egiten dela. Badirudi munduko ia gizon guztiek irabazi dutela txapela eta zu zarela, haien denen ondoren, txapela jantzi duen lehenengo emakumea. Eta ez da egia. Artistikoki oso gizon gutxik irabazi dute txapela eta ni naiz, oraingoz, txapela irabazi duen emakume bakarra, niretzat oso esanguratsua ez den titulua. Badakit, hala ere, bere garaian sekulako esangura sinbolikoa izan zuela eta garrantzitsua dela belaunaldi gazteentzako erreferentzia hori sortu eta normaldu egiten



den neurrian. Baina, tira, due-
la zortzi urte izan zen hori eta
oraindik horrekin segitzea,
pertsonalki eta artistikoki, ez
zait gustatzen. Ni harro nago
eta bere garaian sekulako ga-
rrantzia izan zuen. Geroztik
gauzak izugarri aldatu dira
onerako, eta, kopuruek esan-
gura bat dutela jabetuta, nor-
banakoez eta bakoitzaren
ekarpen artistikoaz hitz egiten
hasi behar dugu.

**Oholtzara emakumeak igotze-
ak beren gaitegi eta mundu
ikuskera, oholtza eta oholtza-
pea mugiarazi ditu.**

Plazatik datorren zerbait da
hori. Ideologikoki pil-pilean
dagoen belaunaldi bat da, bere
gorputza eta bere burua jen-
daurrean oso pentsatuta due-
na, bertsogintzan gaur arte zer
kantatu izan den eta zer ez oso
presente daukana, aktiboki eta
ideologikoki horri kontra egi-
ten ari dena... Oso interesga-
rria da, gure oinen azpiko lu-
rra zartatzen eta dardarka
jartzen ari direlako. Belaunaldi
berri horri zor diogu gure oin
azpia, gure ingurua, gure habi-
tata astindu izana eta horrek
eragina du –edo izan beharko
luke– mundu guztiarengan;
emakumeongan, gizonezkoen-
gan, entzuleengan, gai-jartzai-
leengan, epaileengan...

Antza denez, txapelketa ho-
netan ez da aski izan temati-
koki edo ideologikoki eginda-
ko ekarpena. Txapelketak
eskaera batzuk ditu, denetari-
ko dohainen osotasun bat izan
behar duzula dirudi. Niretzat
oso-oso garrantzitsua da ekar-
pen ideologikoa eta tematika
berriak azaltzea. Orain helbu-
rua da hori gero eta finago eta
gero eta hobeto egitea artisti-
koki. Ez dut esan nahi gaizki
egin denik, baina plazaratu di-
ren gaien eta sortu den haus-

turaren interesgarritasuna eta
puntutan izan duen emaitza
ez dira parekoak izan.

**Zure txapelketako ibilbidea: bi
saio, Irun eta Donibane Lohizu-
ne, bi salto eta BEC.**

Oso desberdinak izan dira. Le-
hen egunean estu samar nen-
goen, ez nuen nik nahi nuen
saioa egin. Baina gauza onak
ere egin nituen eta orotara
gustura samar geratu nintzen.
Asko famatu da bakarkakoa,
baina bitartean ez nintzen
hain gustura geratu. Doniba-
nen, berriz, ustez lasai nengo-
en, baina ez nengoen oso argi
eta zorrotz. Eustea lortu nuen,
baina saioan zehar ez nintzen
erabat gustura sentitu.

**Irungo zure bakarkako lana
historiako onena izan dela esa-
tera iritsi dira.**

Historiako kartzela onena?
Oso sentsazionalista da hori,
eta, gainera, ezin da neurtu.
Zeinek esan behar du historia-
ko onena dela garaian garaian
gizarteak eta bertsolaritzak
ezaugarri batzuk baldin badi-
tuzte? Ez zait inporta historia-
ko onena den edo ez. Ez zait
interesatzen eztabaida hori.
Balio izan bazuen, nahikoa.

**Eta Donibane Lohizuneko saio-
an, potoa.**

Ez nintzen konturatu. Baina
poto bat egitea ez da hain dra-
matikoa. Gertatzen dena da
txapelketa batean dagoen hel-
duleku objektibo bakarra dela.
Subjektibotasun horretan guz-
tian, kasik eztabaidarik gabe
aipatu daitekeen zerbait da.
Ez, aldiz, euskarari egindako
bihurrikeria bat, zentzurik ga-
beko esaldi bat... horiek beti
anbiguoagoak dira, ez dira
hain heldu errazak.

Normala da jendeak pota
bat horrelako izuarekin bizi-

*«Emakume
gazteena pil-pilean
dagoen belaunaldi
bat da. Oso
interesgarria da,
gure oinen azpiko
lurra zartatzen eta
dardarka jartzen ari
direlako, eta horrek
eragina dauka
mundu
guztiarengan»*

*«Gaia oso
transzendental
denean,
saiatzen naiz
transzendentalismo
doakorik ez
eranstean, bihotza
ukitu nahi hori
ekiditen. Nire
erronka bada
neurritsua izatea
eta pretentziosoa
ez izatea»*

tzea, eta txapelketan puntu as-
ko kentzen ditu. Baina ni Do-
nibaneko kartzelarekin gustu-
ra geratu nintzen, nahiz eta,
noski, nahiago nukeen potarik
ez egin. Baina niretzako ez da
horrelako drama. Jakina pota-
ak egiten ditudala!

**Zure bertsokerak errealitate
birtualeko betaurrekoen antza
dauka. Kontatzen duzun isto-
rioan sartzen da publikoa, per-
tsonaiaren azalean sentitu.**

Ez dakit, pentsatzen dut ideo-
logiatik ailegatzen zarela hor-
rra. Esan nahi dudana eta esa-
teko modua ideologikoak dira.
Eta estetikoki eta sinesgarrita-
sunari begira, saiatzan naiz
sermoitik aldentzen. Gaia oso
transzendental denean, saia-
tzen naiz transzendentalismo
doakorik ez eranstean, bihotza
ukitu nahi hori ekiditen. Gero,
bat-batekoan, gerta daiteke
irrist egitea eta potolokeriatan
erortzea. Baina nire erronka
bada neurritsua izatea eta pre-
tentziosoa ez izatea.

Gero, oholtzan gertatzen de-
na zoria da. Batzuetan errimak
ematen dizu ideia, besteetan
kasualitate batek... baina zuk
buruari eman diozun molde
baten barruan gertatzen da.
Molde hori aurretik landu de-
zakezu, begirada landu deza-
kezu, zori horren barruan, esa-
ten duzuna neurrikoa izan
dadin eta egin nahi duzun ho-
rretatik gertu samar ibiltzeko
aukerak izan ditzazun.

**Ahazkotasunetik gertu suma-
tzen zaitugu beti.**

Pozten naiz, nire azken bola-
dako kezka baita. Nik uste dut
bertsolaritzak ahazkotasunera
etorri behar duela berriz,
nahiz eta pentsatu egin behar-
ko litzatekeen gaur egun zer
den ahazkotasuna. Ahazkotas-
un purua ez da existitzen, de-

nok bertsotan idatziz ikasten
dugu, mundu bisualaren pre-
sentsia erabatekoa da... Ez da-
go ahazkotasun bat bere ho-
rretan, lehen ulertzen zen
bezala. Baina uste dut bertso-
gintzari badagokiola ahazko-
tasun bat berrasmatzea eta
proposatzea, eta egiteko eta
ikasteko moduetan oinarri ho-
rretara etortzea, ahazko jard-
na den neurrian. Nire norabi-
dean inporta zaidan zerbait
da.

**Unai Agirre, finalista berria.
Oso gertukoa duzu.**

Sekulako poza hartu dut. Unai
bertsokidea eta lagun mina
dut. Aitor [Mendiluze], Unai
eta ni elkarrekin gabiltza 10
urte genituenetik. Nire bertso
ibilbidean, baita bizitzan ere,
beti gertu egon den pertsona
da eta asko miretsi izan du-
dan bertsolaria. Unai bertso-
kera berezia dauka; azken ur-
teetan ez da asko ibili Euskal
Herriko plazetan eta kanpoak
gehiegi moldatu gabeko bert-
sokera dauka –ez gehiegi lan-
du gabea–. Horrek bere intere-
sa eta bere indarra dauka.
Ahazko tradizioetik eta bertso
tradizioetik egiten du bertso-
tan, baina ideia berriak eka-
rriaz, eta hori da interesgarria.
Joskeretan, errimetan eta gau-
zak esateko moduan sekulako
arnasa ematen dio bertsoari.
Ederra izango da aire hori iza-
tea finalean.

Nola zoaz finalera?

Gustatuko litzaidake saio bo-
robil bat egitea, orain arteko
saioetan izan ditudan irrista-
darik gabe. Gustatuko litzaida-
ke saio horietan baino argiago
egotea, zorrotzago, alaiago eta
ni sentitzea bertsotan. Saio
kontziente bat egin nahi dut,
ahal den borobilena eta ahal
den ertz gehienekin.

AITOR SARRIEGI GALPARSORO

Gustura dago Aitor Sarriegi, bizitakoa asimilatzen. Iruñen eta Iruñean egindako saio onen ondotik, sekulako lasaitua hartu du. Duela lau urteko Euskal Herriko txapelketan kantatu gabea zen eta «tarte handia» da hori. «Berriz hor sartzea kosta egiten da eta beldur pixka bat izaten da nola erantzungo dizun horri». Beasaingo Arrano elkartearen, justu BECetik bueltan ospakizun afaria egiten duten mahaian solastatu gara berarekin.

Kalean zein elkartearen «zorionak» eta «zorionak» ematen dizkiote herrikideek. «Bertsolaria zara?» galdetu diote, berriz, umeez. Maitasuna jasotzen ari da eta zeini ez zaio gustatzen hori. Abendu ederra du: Pirinioetara eskapadak, finalaren «saria» gozatzea... eta 26an urtebetetzea.

Zein sentsazio izan zenituen Iruñean? Zein ariketarekin gelditu zinen gusturen?

Bada ez nuke asmatuko esaten, ez ninduelako batek ere bete. Kartzelan hartutako bidearekin geratu nintzen gustura. Baina denbora asko pasa nuen erabakitzen eta horrek denbora kendu zidan bertsoak pentsatzeko. Ia esku hutsik hasi nintzen kantatzen eta nik uste antzeman egin zela hori, batik bat bigarren bertsoan.

Bai Iruñen eta bai Iruñean aunitz estimatu nuen entzule bezala zure kantaera lurtarra eta umoretsua.

Jendeak erraz identifikatuko dituen gauzak esatea edo iradokitzea gustatzen zait, bertsoa zerbait ukigarria izatea. Nahiko pragmatikoa naiz bizitzan eta bertsoan ere izaten saiatzen naiz. Umorearena ja gehiago da kasualitate kontu bat. Ez dut us-

1976an Beasainen jaioa. Informatikan ingeniaria eta irakaslea Urretxu-Zumarraga Ikastolan. Gipuzkoako txapelduna izan zen 2011n eta hirugarrenez kantatuko du BECen. Lan aparta eginda utziko du lehia.

Maiden lantzi Goienetxe



«Gure belaunaldikok uzteak baino gehiago kezkatzen nau lehenengo labaldiko bertsolaririk sartu ez izanak Euskal Herrikoan»

«Jendeak erraz identifikatuko dituen gauzak esatea gustatzen zait, bertsoa ukigarria izatea»

te bertsolari bereziki umoretsua izan naizenik. Pertsona agian gehiago. Aurten bi lan egin ditut bakarka. Lehenengoan bai izan zen erabaki bat, Maialen Lujanbioren ondoren kantatzen nuen eta zerbait oso desberdina egin behar nuela pentsatu nuen. Baina Iruñean azken unera arte beste ideia batzuekin ibili nintzen bueltaka, gezurrezko baja hori etorri zitzaidan arte. Ez nuen aukeratu umorezkoa zelako, baizik eta niretzat onena eta sinesgarriena zelako.

Nola prestatu zara?

Iñaki Apalategiri galdetzen badiozu esango dizu onddoak janda. Ez dut entrenamendu antzeko gauza berezirik egiten azken urteetan. Errima zerrendarik ere ez. «Txapelketa mode on» jartzen naiz. Apalategirekin elkartzen naiz astean behin, bere etxean ala nirean, txandaka. Batzuetan kantatzen dugu, afaldua beti [irriak ihes egiten dio]. Nire kasuan txapelketa prestatzea gehiago da jarrera kontu bat.

Bizimodua aldatzen duzu txapelketa garaian?

Gorabeheratsuagoa bilakatzen zait, baina ez zait gustatzen aldatzea, uste dudalako ohiko bizimodutik ateratzen dela gero kantatuko dudana. Adibidez, kafea kamioilari batentzat egun horretan sozializatzeko modu bakarra izan daiteke. Beste era bateko lan bat egiten duen pertsona batentzat, berriz, bakarrik egoteko modu bakarra. Batek tanta botako dio eta besteak ez. Tantoa botatzen diona kamioilari bada hirugarren adar bat ateratzen da. Eguneroko gauza eta ekintzetan gai asko dago eta txapelketan adiago egoten gara halako detaileak ikusten saiatzen... Ez garelako makina batzuk, eta agobiatzen ari naizela ikusten badut...

Info7 irratian aipatzen zenuen ez zenuela burua gehiegi berotu eta erotu nahi.

Bestela ere nahiko erotzen gara eta niri behintzat txapelketak eragiten dit. Umorean eragiten dit, gorabeheratsuago nago. Orain logura daukat eta orain ez, oraintxe gose naiz eta oraintxe ez dut ezer jan nahi, oraintxe dena egiteko gogoa daukat eta oraintxe etzanda egon nahi dut... Hori ordu laurden batean bi aldiz. Horrek nire lanean eragiten du, etxean, lagunekin... Denen. Bada nahiko eragin, gainera, nire kasa erotzen hasteko.

Lehen helburua finalera pasatzea zenuen. Eta bertan, zein izanen da bigarrena?

Gustatuko litzaidake lehen asmatutako gauzetan berriz asmatzea eta asmatu ez ditudanetan asmatzea [barrez bukatu du esaldia]. Finago, zorrotzago, hobeto egin nahi nuke bertsoan. Uste dut orain dela hogeitau urte hobeto egiten nuela teknikoki. Egun luzea da, bi saio dira, eta ez da erraza izaten egun osoan eustea. Denek esaten dutena, gutxienez lan bat uzten badugu jendea gogoratzeko modukoa, eta ahal bada bat baino gehiago, hobeto.

1997an kantatu zenuen lehenengoz Txapelketa Nagusian eta hau izanen da azkena zuretzat. Zergatik erabaki hori?

Lotuta dago lehen esan dizudanarekin. Seigarren txapelketa da eta seitik gora egin dituztenak ez dira hainbeste. Aurten, oker ez banago, Jon Maia, Igor Elortza eta Aitor Mendiluze izango dira zazpirekin. Ez da kasualitatea. 40 urte 30 urte berriak direla esaten da, baina ez. Ez daukazu 25 urterekin zenuen grina. Aldatu egiten dira gauzak, eta, gainera, eguneroko bizitzan eragiten dizu. Planteatzen hasten zara be-

netan ez ote den nahikoa, ez ote dituzun gehiegi baldintzatu zure ingurukoak... Helburua beteta eta Barakaldora iritsita uste dut ez dagoela toki hoberik uzteko.

40 urteren bueltan bertsolari ugari zaudete. Gerta daiteke dezenterentzat azkena izatea eta hemendik lau urtetara finala erabat aldatzea?


Galdetu besteei! [irriz]. 1997an gertatu zen hori, gure belaunaldiko jendea sartu zenean. Bat-batean lau berri iritsi ziren finalera. Eta 2001eko finaletik uste dut aldiko bat bakarrik aldatu dela. Aurten sartu den berria ere gure garaikoa da. Belaunaldi indartsua izan da. Ni belaunaldi honek uzteak baino gehiago kezkatzen nau lehenengo labealdiko bertsolaririk ez sartu izanak Euskal Herrikoan. Sartu diren gazteenak bigarren txapelketa batean sartu dira. Badago inbutu bat, 30-40 urte bitarte horretan; bat erortzen bada, sartzen dena ere belaunaldi horretakoa da eta gazteek sabai bat daukate. Niretzat hori kezka-garriagoa da gure belaunaldiko-
ok zer egingo dugun baino.

Aitzineko finalean Unai Agirrekin berdinduta sartu zinen. Aurten biak pasa zarete.

Unai Agirre eskolarteko txapelketetatik ibili da. Asko pozten naiz disfrutatu ahal izango duelako sari horretaz. Freskura eta erritmoa emango ditu. Ofiziotarako oso kantukide ona da. Kantari ona, doinu zaharrak berreskuratu zalea... Berarekin ez dago inolako kuidadorik.

BECen txiki sentitu izan zarela aditu dizut.

Oso handia ere ez naiz, baina bai. Ez beste batzuetan bezainbeste, sabai altuagoa dutenak, Illunbe bera. BEC da oso luzea eta bertsotarako oso goxoa,



Juan Carlos RUIZ | ARGAZKI PRESS

ematen duenaren kontra. Arriskua dago edozerekin konformatzeko. Txaloea beti ziurtatuta daukazu. Orduan, zure buruari exijitzeaz kontziente izan behar duzu. Zarenean eta lortzen duzunean konturatzen zara txaloea joan eta etorri egiten dela, distantzia egiten duela. Burrundara

hori da BEC frontoi batetik bereizten duena. Ez hainbeste inpaktu bisuala.

Lehia utzita ere, plazetan kantari segituko duzu?

Bai. Gainera, orain hasieran uholde handi samarra izaten da eta horri erantzun behar diozu.

Gero ere tokatzen den neurrian gustatuko litzaidake.

Txapelketan zein aldaketa dira zuretzat deigarrienak?

Gizon-emakume kopurua, gizonetako mota, gaiak, hauei heltzeko modua, planteatzeko era... Dena aldatu da. Eta, agian, lehen

esaten nuen neke horren barruan hori ere badago. Bizitza bera bada etengabeko ikaskuntza bat, beste ikaskuntza paralelo bat eraman behar duzu, jendaurrean egin behar duzun bizitza horrena.

Jendea hagitx gainean duzue sare sozialetan, zuen diskurtsoa kritikoki behatzen.

Kasu batzuetan oso estu hartzeraino. Bat-bateko jardun batean ari zara. Uler dezaket entzuten dagoenak zerbait oso barneratua badu esatea: «Hori ez zaio kasualitatez atera bi segundotan, horrek esan nahi du ez daukala behar bezain barneratua, edo nik barneratua eduki behar duela uste dudana bezain barneratua». Bale, baina emaiotzu espazio bat, denbora bat mikrofono aurrean jarri denari, edo zerbait esan nahi badiotzu agian lehenbizi beste toki batean esan behar diozu. Agian ez zuen hori kantatu nahi. Saioa bukatu eta egunean bertan Twitter begiratzten dut. Unean erreakzio bat jasotzen duzu, baina sare soziale-
takoa beste erreakzio mota bat da, konturatu ez zarena.

Hori ez da presio bikoitza?

Bada presio pixka bat, baina hobe al da hori dena hor egon eta zu horren ezjakinen ateratzea plazara? Sare sozialekin gertatzen da dimentsioaren interpretazio oker bat dagoela askotan. Nahikoa izan daiteke *influencer* bat emateko jende guztia horretaz ari dela hizketan eta ez da horrela. Nik irakurtzen ditut komentarioak, barre egiten dut, gauza batzuekin ados nago eta besteekin ez. Txapelketa honen ezaugarrietako bat da Twitterren eragina. Gure kantaeran eragin nabarmena du. Nik bi aldiz behintzat birplanteatu ditut gauzak bide bat ala bestea hartu aurretik...



www.ivanlanda.com

2017

TV ADEL
K...

PUNTU

2017

TXAPEL
KETA
NAGU
SIA



JOKOAK

«Une oso onean nago txapelketan, koxkaz koxka gorantz noala sentitzen dut»

Bertsozaleei bertsolarien izenekin zerrenda bat osatzeko eskatuz gero, gorago ala beherago, beti agertuko da Sustrai Colina urruñarraren izena zerrenda horretan, urteak daramatzalako lehen lerroan, plazetan kantari, eta baita txapelketetako finaletan ere. Urtean ehun plazatik gora egiten ditu.

Txapelketa Nagusiko final hau, bosgarrena du jarraian; ia bizitza erdia darama bertan. Izan ere, 2001ean 19 urterekin kantatu zuen lehen aldiz Donostiako Belodromoan, eta 37 urterekin arituko da aurtengoan. Denboraldi batez bigarren izatearen estigma jarri izan zaio, Euskal Herriko Eskolartekoa irabaztetik landa ez baitzuen txapel handi bat buru gainean jantzi. Baina 2014an jantzi zuen Xilaba Iparraldeko Bertsolari Txapelketakoa, eta bigarren aldiz 2016an, etengabeko eboluzioan, ertzak ukitzen eta gorantz doan bertsolaria dela agertuz.


Colinak bi finalerdi jokatu ditu aurtengo txapelketan, eta biak irabazi; freskotasuna eta sendotasuna, biak erakutsi ditu, eta txapelerako hautagaien zerrendan bere izena ere idatzi behar dugula oroitarazi.

Olatu ona hartuta, eta haren gainean distiratsu ikusten zaitugu aspaldian...

Bizi-aldikada onean nago. Egin nahi ditudanak geroz eta argiago dauzkat eta niretzako daukadan denbora zeri eskaini nahi diodan ere bai. Aurreko Txapelketa Nagusiaren atarian krisi moduko bat izan nuen, nire burua agortuta sumatzen nuen. Dozena bat urte neramatzan urtean ehun plazatik gora eginez, inertzia asko metatuta nengoen, eta ordurako, banekien zer zen bertsolari bizitza. Hor erabaki nuen bertsolari izatetik nahi nuen bertsolaria izateko saltoa ematen saiatzea. Horrek nire jarduna eta nire baitako zutabe asko zalantzan jartzera behartu nau, eta, batez ere, lan asko egitera. Horretan nabil ordutik, eta zailtasunak zailtasun, arnas berri bat izan da niretzat. Oraindik libreago eta konplexu gutxiagorekin egin nahi nuke bertsotan, baina bidean gozatzen ari naiz.

Bastidan eta Amurrion kantatu duzu, bi finalerditan, biak Araban, eta bietan garaile. Izan du-te beste antzekotasunik zuretzat?

Bastidakoa martxan zetorren tren batera igotzea zen, norbere beldur eta zalantza guztiak txapelketaren ispiluan topatzea.



Juan Carlos RUIZ | ARGAZKI PRESS

SUSTRAI COLINA ACORDARREMENTERIA

Urruña, 1982. Bi aldiz irabazi du Xilaba Bertsolari Txapelketa, 2014an eta 2016an. Bosgarren parte hartzea du Bertsolari Txapelketa Nagusian eta bosgarren finala. Bostetik bost, beraz.

Jon GARMENDIA



Kartzelara arte nire burua kausi-tzea kosta zitzaidan. Azken ba-karkakoan askatu nintzen. Ho-rrek konfiantza eman eta txapelketa zer zen oroitarazteko balio izan zidan.

Txapelketaz beti geratzen zaizkigu gozatutako une distira-tsua gogoan, baina txapelketa lokatzetara jaistea tokatzen de-nean katiuskak jantzi eta norbe-re burua lokatzetan defendatzea ere bada. Hala, beste gorputzal-di eta intentzio batzuekin joan nintzen Amurriona. Sentsazio onak sentitu eta gora egitea jarri nuen helburutzat, eta, ahal iza-tera, saioa hasi eta buka Bastida-ko kartzelakoaren mailan egi-tea. Sentsazioak hobeak izan ziren askoz, bertsoan nire bu-rua libreago eta jauzi egitetik gertuago nabaritu nuen, Basti-dan baino gorago. Horregatik gustatuko litzaidake BECen go-ranzko joera horri eustea eta bertso on andana uztea.

Prestakuntza ardatza da Txapelketa Nagusi on bat egiteko. Askoren ahotan dago aipamen hori, nahikoa al da?

Prestakuntza ezinbestekoa da ez Txapelketa Nagusi on bat egite-ko, bertsoan oso ongi egiteko baizik. Bakoitzak daki bere indargune eta ahulguneak zein-tzuk diren, zer irakiten den bere baitan, zein ekarpen egin nahi-ko lukeen, zein bidetatik jo. Bide horretan aurrera egiteko nahita-ezkoa da zure burua baliabidez janztea eta horretarako lana, la-na eta lana da nik ezagutzen du-dan errezeta bakarra. Jakina, kontua ez da orduak sartzea, egiten duzuna irizpide batekin egitea baizik. Gero ez da ahantzi behar bat-bateko sormen artistiko baterako prestatzeaz ari gare-la, eginbide lauso eta gorabehe-ratsu batez, baina entrenatu den-dena entrenatzen da, baita talentua bera ere. Besterik da

zuk egindako lanaren fruitua zuk nahi duzun egunean jaso-tzea.

Ariketa guztietan sumatu zai-tugu sendo, bertsoak goitik be-hera josten, ofizioetan trebe, laguntza ekarriz eta erantzune-tan fin. Bakarkakoetan ere ezin hobeto, idatzizko testuak ia... Zergatik da, ariketa guztiei eskaintzen diezulako arreta be-ra? Denak dituzu gustuko edo baduzu errespetua sortzen di-zunik?

Bertso guztiek berdin balio dute, ezta? Nik argi daukat lehen ber-tso oso on bat botatzea dela bi-garren hobe bat botatzeko mo-durik onena. Are gehiago, bertso bakoitza aukera bat da niretzat, esan nahi dudana esa-teko, utzi nahi dudana ikuspegi bat uzteko, pertsonaia bat de-taile esanguratsu batez ezauga-rritzeko... Nahi eta ahal dudana-ren arteko borrokan ibiltzen naiz ni ere, baina bertso bakar bat ez galtzea da hastapeneko helburua. Horregatik sortzen didate ariketa guztiek errespe-tua, emateko nagoelako, eta ez diodalako aukera bakar bati ihes egiten utzi nahi.

Zortzi buru eta txapel baka-rra, betiko topikoa, baina txapelerauko aukera berdinak di-tuzuela uste duzu? Zer egin behar da txapela janzteko? Eta zer egin behar du zehazki Sustrai Colinak txapela janz-teko?

Nik ez dut pentsatzen txapela janzteko zer egin behar dudan. Nire barruan dagoen bertsolari ateratzeko zer egin behar dudan pentsatzen dut nik, nire esku daudenak ongi baino ho-beto egiten saiatzen zentratzen naiz. Badakit BECen kantatuta-ko bertso on bakoitza jendeak bere baitan daraman su txiki bat bezalakoa dela. Su txiki asko

«Nik argi daukat lehen bertso oso on bat botatzea dela bigarren hobe bat botatzeko modurik onena. Are gehiago, bertso bakoitza aukera bat da niretzat»

«Bakoitzak daki bere indargune eta ahulguneak zeintzuk diren. Bide horretan aurrera egiteko nahitaezkoa da zure burua baliabidez janztea eta horretarako lana, lana eta lana da nik ezagutzen dudan errezeta bakarra»

«Orain lau edo zortzi urte baino bertsolari hobe a naizela sinesten dut, eta umiltasunez eta anbizioz ari naiz lanean»

pizteak ematen du su handieta-rako aukera. BEC egoera animi-ko bat ere bada. Horregatik, gor-putzaldi ona eta bihotzaldi hobe a nahi nituzke.

Txapela irabazteko faborito-en artean zaudela inoiz baino jende gehiagori entzun dioda-la esaten badizut, presiorik sentitzen al duzu?

Une oso onean nago txapelke-tari dagokionez, koxkaz koxka gorantz noala sentitzen dut. Orain lau edo zortzi urte baino bertsolari hobe a naizela sines-ten dut, eta umiltasunez eta an-bizioz ari naiz lanean. Umilta-sunez, badakidalako final osoa nire buruaren eta korrontearen aurka pasatzea ez dela atseгина, eta anbizioz, Sustrai osoena eta onena erakusteko gosez nagoe-lako.

Bizitza erdia daramazu fina-lak jokatzan. Gazteena zinen 2001ean 19 urterekin, eta hel-du bilakatu zara. Nola oroi-tzen duzu ibilbide luze hori? Final bakoitza desberdina da?

Ez naiz 19 urterekin nintzena, ez pertsona eta ez bertsolari gi-sa. Orduetik poz, desilusio, min eta amets batzuk izan ditut, al-datu naiz, susmatzen ez nitue-nak ezagutu ditut... Batzuetan bide hori publikoaren aurrean egin dudala pentsatzeak lotsa-ren eta pozaren arteko nahaske-ta arraro bat sortzen dit. Aste-bururo gaude jende aurrean, ez lau urtean behin bakarrik. Jen-deak gure gau gloriosoenetan eta etsigarrienetan ikusten gai-tu, eta hor sortzen den loturak balio handia du niretzat.

Bizi naizen Lapurdiko itsas hegian maitasun eta mires-men zantzuak nonahi suma-tzen ditut zueganako, asko eta asko ziren pozarren Xilabako txapela jantzi zenuenean. Fi-

naleko egunean, Urruñan, zu-re herrian, jende mordoxka bilduko da elkarte batean fi-nala pantaila erraldoian ikus-teko. Sustrai bertsoari be-zainbeste eman al dio bertsoak Sustrairi?

Emaitzak emaitza, beti sentitu naiz babestu eta maitatua. Gau-za handia da hori. Bertsoak eman didana izugarria da, lagu-netatik hasi eta herri honen so-zilogia bat ezagutzeko aukera-raino. Sentimendu paleta anitz eta aberats bat eman dit, nire burua bestela usainduko ez ni-tuzkeen egoeren aurrean jarri dit, nire barrua lantzeko aukera eman dit... Ezinbestean, nire izaeran pisu handia du eta izan-go du ibilera horrek.

Aurtengo txapelketak aldake-tak ekarriko zituela uste zen, baina ez da halakorik gertatu, instituzio zurrun bat dirudi....

Izotz-mendiaren puntan alda-keta gutxi agertzeak ez dela al-daketarik egon esan nahi du? Ez nago ziur. Gazteagoak konple-xurik gabe eta euren ikuspegiak sendo aurkeztuz ikusi ditut. Hor daude Miren Amurizaren Zallako edo Nerea Ibarzabalen Amurrioko kartzelakoak, Julio Sotok edo Jone Uriak finalau-rrekoetan egin dituzten saioak. Hortik ere badut zer ikasia. Ma-tematikari begiratzea bezain zi-legi iruditzen zait sormenari erreparatzea, eta sormenenean urak mugitzen ari direla ukaezi-na da.

Agurren txapelketa ere ba omen da, pixkanaka agurra iragartzen hasiak daudelako batzuk, eta adinez zaharrak di-rela ezin esan. Noiz arte izango dugu Sustrai?

Ez dakit, baino espero dut ni erretiratu aurretik Urruñako el-kartean batzen direnetako ba-tzuk BECera joan ahal izatea!

«Ahozkotasunetik jaten eta bertsoa belarriz eramaten saiatzen naiz»

UNAI AGIRRE GOIA

Hernani, 1975. Euskal Herriko lehen finala du aurtengoa. Aurrekoan, 2013an, finalaren atarian geratu zen, Aitor Sarriegirekin puntutan berdinduta. Hirutan izan da Gipuzkoako finalista.

amagoia.mujika@gaur8.info

Finalista berria da, bertsokera klasi-koa gaurko ideiez jantzia dakarrena plazara. Ez orain, aspalditik. Kiniele-
tatik kanpo eman du txapelketa, neurriko presio motxilarekin. Irabazi beharreko gehiena irabazita duen arren, mingaina eta ideiak zorrotz eraman nahi ditu BECera; plazari neurria hartu eta lehiari grazia eman.

Kiniela gehienek ez zintuzten finalean kokatzen.

Ez zait asko inporta izan hori. Nik orain lau urteko esperien-
tzia neukan, baita aurreko txapelketa askotakoa ere. Nik bane-
kien pasatzeko zer egin behar zen: saio oso on bat. Orain, ez nekien horretarako gai izango ote nintzen, aurten distira han-
dirik gabe nenbilelako. Iruñeko finalaurrekoaren bezperan saio bat izan nuen eta mesede han-
dia egin zidan, nire burua probatzeko balio izan zidalako.

Aldi berean, ikusten dut beste jende bati kinielek okerrago era-
gin diotela. Presioa eramatea ez da hain erraza. Askotan galde-
tzen da zergatik pasatzen diren lehengo finalistak, zergatik pa-
satzen den jende berri gutxi... Nire ustez horren errudun na-
gusietako bat presioaren kudea-
keta da, eta ez hainbeste bertso maila. Atzetik bertso maila oso ona duen jende asko dator, bai-
na momentu zail horien kudea-
keta ez da erraza. Aurten jende dezente ikusi dut motxila han-
diegiarekin. Hortik ikasi egin beharko genuke; bai, behintzat, jende berria finaletan ikusi nahi badugu.

Zu motxila gabe iritsi zara.

Bai, nik nire motxila neraman, ez kanpokoena, eta ezkutu sa-
mar egote horrek mesede egin dit. Distira falta zitzaidala ikus-



«Aurten jende dezente ikusi dut presioaren motxila handiegiarekin. Hortik ikasi egin beharko genuke; bai, behintzat, jende berria finaletan ikusi nahi badugu»



ten nuen, baina, era berean, gero eta hobeto sentitzen nintzen txapelketan. Ikusten nuen nik nirea egiten banuen, aukerak izango nituela. Horrela joan nintzen Iruñera, kale edo bale. Eta azkenean ondo atera da.

Noiz konturatu zinen finalean egoteko aukerak zenituela?

Ni Iruñera ez nintzen joan finalerako borroka egitera; saio on bat egitera joan nintzen. Ordura arte txapelketan gris antzera ibili nintzela sentitzen nuen eta saio on bat utzi nahi nuen. Egia da saioa hasi eta ariketaz ariketa saio oso normal bateko eskemarekin aritu nintzela; entzun, erantzun... Igual, txapelketatik aparte samar. Baina kartzelara joan nintzenean konturatu nintzen ez nuela oso urruti behar.

Zure bertsokera besteen desberdina da. Bertsolari klasikoetatik gertu, baina ideia berriekin. Finalari kolore berezia emango dio.

Finalean sartzen den berriaren bertsokera nabarmentzeko joera dago. Tira, nik urte asko daramatzak plazan eta ez dut ezer berririk eramango finalera, jendeak badaki nik nola egiten dudan bertsotan. Baina nirea bada bertso molde bat gaur egun ez dena hainbeste entzuten. Nik asko edan dut iturri tradizionaletik, baina gaur egungo pertsona naiz eta nire pentsaera gaur egungoa da.

Kontzienteki egiten duzun ariketa bat al da?

Tira, gaur egun ez nuke esango kontziente egiten dudarik. Gu bertso eskola batetik gatoz, Hernaniko bertso eskolatik, eta ume-umetatik iturri horietatik asko edan dugu. Nire bertso ingurua oso lotuta dago batetik Hernaniko bertso eskolari eta, bestetik, Errezili. Nire umezaro-

aren erdia Errezilen pasatu dut, aita bertakoa delako, eta hango euskarak, berriketaldiek, hizkuntzaren jolasek... izugarri erakarri izan naute beti eta iturri horietatik edan izan dut, eta segitzen dut edaten eta gozatzen. Une batean konturatu nintzen niri gustatzen zitzaidan bertso molde hori zela.

Ahokotasunari oso lotutako bertsokera da, gainera.

Hori akaso kontzienteagoa da. Hala ere, bertsolari bakoitzak hautu bat egin behar du eta dementzako tokia dago. Ezin da esan bat bestea baino hobea denik. Txapelketak batzuetan badauka denak homogeneizatzeko joera eta kontuz ibili beharko genuke. Epaitu egin behar da eta irizpide batzuk behar dira, ados, baina molde batzuk hautsi egin beharko genituzke. Nik ez ditut epai irizpideak irakurtzen, eta, irakurriko banitu, seguru tripa-ko mina emango lidaketela.

Ni saiatzen naiz –eta ez ni bakarrik, nire bertso inguruko beste asko ere– bertso idatzitik baino ahokotasunetik jaten eta bertsoa belarriz eramaten, nahiz eta askotan kosta egiten zaidan. Nik ere errimak idatzita ikusten ditut. Saiatzen naiz hoscideak diren errimak bilatzen eta hizkuntza ahalik eta ahozkoena egiten.

Eta plazak asko eskertzen du.

Bai. Bada niretzat beste gauza bat oso garrantzitsua: erabiltzen den hizkuntza. Hizkuntza horri eta horrekin egin daitekeen jolasari garrantzia ematen diogu gure bertso eskolan. Gauzak esateko moduak grazia bat behar du. Hizkuntzaren grazia hori oso garrantzitsua da eta gure inguruan ahalegin handi bat egiten dugu. Ni, esaterako, forman ez nagoenean bertsolari eskasa naiz, graziaz ez dudalako.

«Nire bertso ingurua oso lotuta dago Hernaniko bertso eskolari eta Errezili. Nire umezaroaren erdian pasatu dut eta hango euskarak, berriketaldiek, hizkuntz jolasek... izugarri erakarri izan naute beti»

«Ni saiatzen naiz –baita nire bertso inguruko beste asko ere– bertso idatzitik baino ahokotasunetik jaten eta bertsoa belarriz eramaten, nahiz eta askotan kosta egiten den»

«Oraingo gauza bati bakarrik diot beldurra: tentsiorik gabe joatea. Ni azkenengo postuan eta espero gabe sartu naiz. Nik nire txapela jokatu dut. Tentsioarekin eta lehiara joan behar dut»



BEC. Sekulako plaza. Irudikatu duzu zure burua bertan?

Pixkanaka joan beharko dut irudikatzen. Gainera, barregarritzko astea egokitu zait, agenda topera, eta ezingo ditut egunak libre hartu. Gauza zelebrea gertatu zait; Euskal Sagardoa jatorri deiturarekin Bilbon emanaldi bat daukat ostiral, larunbat eta igandean. Aurretik esana nuen igandean ez nintzela joango, finalera joateko, eta orain larunbat arratsaldea ere libre hartuko dut. Baina han egon beharra daukat. Kasualitatea.

Baina denbora hartuko dut eta lana egingo dut.

Zerk ematen dizu bertigo handiena?

Gauza bati bakarrik diot beldurra –eta segur asko han beldur berriak sortuko zaizkit–: tentsiorik gabe joatea. Azkenean ni azkenengo postuan eta espero gabe sartu naiz. Nik nire txapela jokatu dut. Tentsio puntu batekin joan nahi dut eta egiatan final hori jokatzera joan nahi dut; bat, nik hala nahi dudalako, eta, bi, entzuleari zor diodalako. Zortzi gara lehian eta nik ere lehia-rra joan behar dut. Jokora sartu behar dut.

Finalista bakoitza oso modu desberdinean iritsiko zarete finalera. Batzuk horretara jarriak erabat, eta, besteak, zu kasu, agendan tarteak topatu nahian. Zuk horrela bizi duzu oro har bertsolaritza, ezta?

Bai, horrela bizi dut. Batzuetan denbora falta horrek kezka pixka bat sortzen du, baina, orokorrean, ez dut batere gaizki bizi. Azkenean bertsogintza nire zaletasuna da, zaletasuna baino gehiago segur aski, baina ez naiz horretatik bizi. Ez nuke hori galtzea nahi, baina egia da nire bizitzan gero eta parte handiagoa duela eta hori kudeatzen asma-

tu beharko dudala. Beldur pixka bat ematen du horrek, baina nahi dut ahalegina egin.

Finalista izateak segur aski agenda gehiago estutuko dizu.

Pentsatzen dut baietz. Hala ere, azken urteetan agendara ezin iritsi ibili naiz. Oso garbi daukat kopuru batetik gora ezin naizela ibili plazan –azken bost urtean 30etik 40ra buelta horretan ibili naiz– eta, ezezko batzuk ematea egokitzen bada, ba eman eta kitto. Baina gustatuko litzaidake plazan segitzea, oso polita da eta. Bolada txarrak ere izaten dira, plaza oso polita eta, era berean, oso gogorra delako, une oro jendaurrean zaudelako.

Elkarrizketa honetan gaudela, jende asko ari zaizu gerturatzzen zoriontzera.

Bai, oso polita izaten ari da. Duela lau urte finalaren atarian geratu nintzen eta jendea doluminak emanez gerturatzen zitzaidan. Orain batzuek zoriondu egiten naute, beste batzuek kasu egin, beste askok begiratuarekin dena esaten didate, badira bersarkatu ere egiten nautenak...

Iruñeko azken agurrean Patxi Bakallo aipatu zenuen, txapelketa Twitterren hain zorrotz segitzen duen zale anonimoa.

Bai, eta gero zalantza batzuk sortu zitzaizkidan. Momentuan besterik gabe egin nuen, bihurrikeria bat bezala, nire aldeko eltzekadak eta beste aipatu dituelako. Baina astakeria batzuk ere esan ditu. Gainera, ez zait gustatzen sare sozialen dinamika hori, izen anonimo baten atzean jarri eta nahi den guztia esateko joera hori. Positiboan egiten den guztiarekin aurrera, baina negatibotik egiten denarekin kontuz. Ez nuen aipatu Patxi Bakallo berarekin ados nagoelako. Hori argitu nahiko nuke.

Donibane Lohizuneko saioaren ondoko egunetan dezente deskantsatu du. Lo egin, paseatu, etxekoekin ere lasaiago ibili, eta gero Iruñeko saiora joan zen lehenengoz aurtien lagunekin, «bertsozale bat gehiago» bezala. Orduz gerroztik, final giro hori nabaritzen du, tentsio puntu bat. «Batzuetan lo lasaiago, besteetan arinago, esnatu gauerdian eta burua bueltaka hasi...».

Zein burutazio izaten dituzu?
Buf! Bukatu dezakezu txikikeriarik txikienean pentsatzen. Agian egin duzun bakarkakoa hobetzeko ideiarekin bat etortzen zaizu, doinuari bueltaka hasten zara, hiru-lau agur pentsatu... [irri egiten du] Ohetik jaiki, etxean pixka bat ibili, berriz etzan... Hala ibiltzen naiz dezentetan. Bestela ere loarekin nahiko gorabeheratsua naiz eta txapelketan gehiago.

Aitor Sarriegik aipatzen zidan gorabeheratsuago egoten dela sasoi honetan.
Dudarik gabe. Badakit tentsioan nagoela eta agian batzuetan konturatzen naiz erreakzioaren bat dudala, ahotsa altxatu alabaren bati motibo handirik gabe eta gero ohartu. Badakit ere txapelketa amaitzen denean konturatuko naizela hiru hilabetetan nola ibili naizen, buruan etengabe dagoelako; nahita deskonektatu behar duzu batzuetan, bestetan nahita aktibatu, hasi notiziak entzutetik, irakurri, pelikulak ikusi... Dena jaso nahi duzu eta momentu batzuetan ohartzen zara hori kaltegarri ere badela, inputa inportantea da baina gero digestioa ere egin behar da. Baina gorabeheratsu baino, esango nuke tentsioan gora-

«Alde gozo eta gaziekin zure burua errebisatzeko aukera ematen dizu txapelketak»

IGOR ELORTZA ARANOA

Luze mintzatzen da, gogoeta gogoetarekin lotuz, 1975ean Durangon jaioetako berbagina. Bost aldiz izan da Bizkaiko txapeldun. Zazpigarren Txapelketa Nagusia du eta laugarrenez kantatuko du finalean.

Maiden Iantzi Goienetxe

gora-gora egiten dudala, atsedena ditzo batzuk saio bakoitzaren ostean, eta gora-gora-gora, eta amaitzen denean eta ondo amaitzen denean lasaitua, hala-ko hutsune existentzial bat ere edukitzen da. Denok dakigu lehenago eror gaitezkeela baina abenduaren 17ra arte kalendariorik mental bat dago. Eta gero iritsi eta pasatu egiten da.

Duela lau urteko gogorapen gozoa daukat. Gogoan daukat Eguberrietan zein gustura egon nintzen etxean, lasai, sofan, pentsatu gabe bertsokideekin ariketak egiteko gelditu beharko nuela, edo liburu bat irakurritz beste patxada edo egoera mental batean. Animi-





koki eta bitalki garai berezia da. Zazpigarren txapelketa da, laugarren finala, eta ikasten da garai hau eramaten. 1993an hartu nuen lehendabizikoz parte. Nire ibilbidea nahiko gorabeheratsua izan da. Lehen bietan finalean sartu gabe baina finaletik gertu, gero bi aldiz finalean egon, kanpoan gelditu, eta 2013an segurutik orain arte egin dudana txapelketarik onena eginda hirugarren amaitu. Nik uste dut lanak salbatu nauela asko. 25 urteko karrera eta gero baten batek ez du sinetsiko, baina izatez nahiko zalantzia, lotsatia eta perfekzionista ere banaiz. Maniatiko samarra ere bai. Ez dira agian dohainik onenak 13.000 lagunena aurrean munduari eta bizitzari buruz inprobisatzeko [barrez]. Halere, grinak, lanerako alferrik ez edukitzeak, esango nuke honaino ekarri nauela.

Zer ematen dizu txapelketak?

Txapelketarok zure buruari egiten diozun galdera da. Eta galdera ikur nagusia gero hortik dator: noiz arte? Hasieran eza gutzera emateko bidea da. Gero, txapelketa bakoitzak bertsogintza hobetzeko, berritzeko, lantzeko aukera ematen dizu beti, eduki, ikuspegi, gaitegi aldetik, bertsokera aldetik ere bai. Denok egiten dugu eboluzio bat. Nire kasuan, 20 urteko ibilbidean esango nuke garai batean gehiago bilatzen nuela ingenioa, irudimena, originaltasuna. Bertsokera ere alde formal, neurri berezien bila jotzea, errimak estu lantzea... Hori galdu gabe, txapelketari eta plazari esker eduki aldetik gehiago joan naiz bizipen esanguratsuen bila, emozioen bila. Mina, irria, gogoeta... Eguneroko bizitzarako baliagarria den bertsokera egitera. Forma aldetik ere, aurre-

koa galdu gabe, landu dudana hori ez dadila hainbeste igarri saiatu naiz, ez dezala errima batek bereziki atentzioa deitu. Bertsokera zoli eta sotil bat egitera joan naiz.

Lanketa hori niri gustatu egiten zait. Txapelketa batek bere alde gozo eta gaziakin ere beti ematen dizu aukera zure burua errebisatzeko. Eta gero kideekin batze hori polita da, konpartitzea. Aurten Eneko Abasolo, Miren Amuriza, Jon Maia eta laurok batu gara eta gure inguruan, nahiz eta txapelketan ez duen parte hartu, Unai Iturriaga ere ibili da. Beñat Gaztelurrutia eta Manu Goigana ere bai. Ondo dago taldera norbait berria biltzea. Denok mugitzen gaitu. Aurten Miren etorri da eta luxu bat izan da, beste ikasbide bat. Batetik bertsolari bezala beste belaunaldi batekoa delako, emakumea; nahiz eta gero finalak ez duen islatuko, indartsu sartu den belaunaldi bateko protagonistetako bat da. Horrek zer gogoetatua eman digu eta hitz dezente egin dugu gaien ikuspegiei buruz, bertsokerrari buruz... Zazpi aldiz egon zarenean, txapelketa bizitzeko beste modu bat dauka. Sartzen zara beranduago, kakotx artean gutxienekoa egitea finalera sartzea da... Miren, oster, behetik gorantz dator, ilusio, indar horrekin.

Zein motibazio dituzu aurten?

Aurrekoan 2009an finaletik kanpo geratzetik nentorren, 2013an berriz finalean egoteko helburuarekin. Eta hori jada motibazio handi bat zen. Aurten pixka bat kosta egin zait. Bastidara hotsasun puntu batekin joan nintzen. Berandu samar hasi nintzen prestatzen, aurrekoan nekatu ere egin nintzelako bukaerarako. Hor momentu bate-

«Beldurrik eta konplexurik gabe, anbizio eta grina puntu batekin, jakinda zaila dela baina lorgarria dela, ilusioa egingo lidake buruz burukoan bertsotan egiteak»

«Gabiltzan zorrotasun maila honetan, nahi dugunaren langa oso exigentea da eta gerturatzen gara. Tarteka harribitxi batzuk ateratzen dira indar hori daukatenak eta magia horrek ez dauka berdinek»

an kezkatua nengoen, Bastida aurreko egunetan ez nuelako sentitzen txapelketarako aldarterik. Pixkanaka etorri da. Hogeitau urte eta gero, lau urtetik behin ezin duzu zure burua berrasmatu, baina aurten ere gehitu dizkiot koska batzuk nire bertsokerrari, gaiak lantzeko, begiratzeko eta narrazioak lantzeko orduan, baita bertsoa egiteko orduan ere. Finalari begira ere, beldurrik eta konplexurik gabe, anbizio eta grina puntu batekin, jakinda zaila dela baina lorgarria dela, ilusioa jakin batekin nago, aurrekoan hirugarren egin nuen eta ilusioa egingo lidake buruz burukoan bertsotan egiteak. Bizkaiko buruz buruko batzuk jokatu ditut, badakit momentu berezia izaten dela, entzule moduan ere bizi izan ditut, eta hor asko berotzen da norbere gorputza, zalearen begirada; eta hori bizi nahiko nuke, hori da nire motibazioa.

Miren Amuriza aipatu duzu. Penaz hartu genuen azkenean finalera pasa ez izana. Ez bera ez hor egon diren maila handiko hainbat emakume.

Uste dut finalean gauden zortziok berresten dugula bertsozalearen ikuspegi hori. Batetik, objektiboki begiratura, plazan eman delako aldaketa bat, azken urteetan indar handiz, belaunaldi berri bat sartu delako. Belaunaldi horren ezaugarri nagusietako bat da emakume asko direla protagonista, eta hori horrela izateak eragin du gaitan, oholtzako jokabideetan, gaiei heltzeko moduan. Eragin dute beren belaunaldian eta gurean. Gu ere ikasten ari gara. Sendo ikusi dut Miren oholtzan eta prestaketetan ere bai. Norbere grinak berritzeko eta indartzeko, behar izaten da argindar iturri bat, eta Mirenek argi eta indar dezente eman dit. Iruñeko

eta gero gure asteroko bilkurara etorri da. Hor dago eta esker-tzen diot.

Fikzioak eta egiak kontatzen dituzue. Nola elkartu?

Fikzioak balio beharko luke egia kontatzeko. Agian 20 urterekin fikzio urrunago eta handiagoek motibatzen zaituzte, eta, 40 urterekin, zure egunerokotasunetik gertuago egoteak. Erosoagoa da urrunagoko fikzio bat hartzea, eta, oster, zure errealitatea argitu dezaketene edo zure egunerokotasunerako baliagarriagoak diren kontuetan sartzen zarenean, labainkorragoa da fikzio hori. Bikote edo lagun harremanei buruz, euskal auziaren iraganak gaur egun daukan pisuari buruz, gurasotasunari buruz... mila gauzari buruz gogoetatzen duzu, baina horrek kabitu behar du bakarkako gaien betekizunetan eta hor sartzeko asmatu behar duzu fikziotxo bat agian zure egia hori traizionatuz. Gabiltzan zorrotasun maila honetan, pertsonaiak lantze nahi honetan, narrazioak egite nahi honetan, nahi dugunaren langa oso exigentea da eta gerturatzen gara. Tarteka harribitxi batzuk ateratzen dira indar hori daukatenak. Sei minututan lortzen denean horrek daukan magiak ez dauka berdinek.

Exijenteagoak al zarete?

Emitzen ez dakit, baina gure buruari gero eta bertsolari gehiagok, askok, jartzen diogun ipar eta helburu horretan bai. Hiru bertsotan pertsonaia bat garatu, edo narrazio bat egin, gaien aurrean ertzak bilatu, ideologikoki, sozialki, politikoki ere ikuspegi kritikoan jarri... Gauza asko dira bat-batean egiteko, agian gehiegi. Nahiz eta ez iritsi, utopia bezala, laguntzen dizu aurrera egiten.

Baigorri
ekin zion bideari aurtengo Bertsolari Txapelketa Nagusiak, joan den irailaren 23an. Atzo izan zela dirudi eta jada pasatu dira hiru hilabete. Alaia Martinek saio ederra eginda lortu zuen finalaurrekoetarako txartela. Bob EDME



Segura
izan zen bigarren geltokia. Neke aurpegietan ikusten denez, bertsolariek gogotik egin zuten lan Baratz pilotalekuko zaleak asetzeko. Juan Carlos RUIZ | ARGAZKI PRESS



Leitza
Berotasuna eta sekulako giroa, horiexek bertako oroitzapenak. Saio polita joan zen eta Oihana Iguaranen eguzki-ahotsa nabarmendu zen. Andoni CANELLADA | ARGAZKI PRESS



Zalla
Mimetiz pilotalekuan «striptease» ausarta egin zuen Miren Amuri-zak kartzelako ariketan, adineko emakume baten gorputz biluzia ederki deskribatuz. Jaiizki FONTANEDA | ARGAZKI PRESS



Zumaian
bat-bateko jardun honetan sortzen diren momentu magiko horie-tako bat bizi izan genuen, Nerea Ibarzabalek, lapurretan harrapa-tzen duten ume baten paperean, begiak itxi zituenean ikusten ez dena ez dela existitzen azaltzeko. Gorka RUBIO | ARGAZKI PRESS



Tolosa
Beotibar pilotalekuko saioa jendetsua izan zen. Plazaren ezau-garriengatik, gainera, publikoa bertsolariengandik hagitz hurbil egon zen. Etxahun Lekue gailendu zen eta finalaurrekoetara pasatu zirenen zerrenda itxi zen. Juan Carlos RUIZ | ARGAZKI PRESS

Bastida

Arabako Errioxan egin zen lehendabiziko finalaurrekoa, eta Sustrai Colinak irabazi zuen. Hona udal kiroldegiak zuen itxura, kartelez apainduta.

Juanan RUIZ | ARGAZKI PRESS



Irun

Saiorik jendetsu eta beroenetakoa izan zen Artalekukoa. Maialen Lujanbioren kartze-lako perlak oihartzun handia izan zuen.

Jon URBE | ARGAZKI PRESS



Durango

Aitor Mendiluze lokomotorraren indarra eta abiadura nabarmendu ziren Landakoko plaza luzean. Jon Maiaren habanera ere aunitz es-timatu zuen publikoak.

Monika DEL VALLE | ARGAZKI PRESS



Amurrio

«Usaina sumatu eta urduri jarri zara» kartzelako gaiak perla politei egin zien bide, Nerea Ibarzabalek hilerokoari kantatua eta Sustrai Colinaren «dolce gabanna»-rena kasu. Jendeak ederki pasatu zuen.

Jaiizki FONTANEDA | ARGAZKI PRESS



Maule

Bertako gazteluaren azpian Beñat Gaztelumendi sailkatu zen goian, kideei koska bat aterata. Julio Sotok bigarren egin zuen. Aipatzekoa da Gorritikoak egin duen txapelketa ona, ariketa aunitzetan goitik ibili da.

Bob EDME | ARGAZKI PRESS



Donibane Lohizune

Igor Elortza gailendu zen azken-aurreko finalaurrekoan, 2.280 lagunen aitzinean, bereziki ofizioetan fin eta dotore arituz. Eserita ageri den Jone Uriak txapelketan egin duen lan aparta ere azpimarratu behar da.

Gari GARAIALDE | XDZ



Iruñea

Eta hala, pausoz pauso, txapelketa bere azken finalaurrekora iritsi zen. Unai Agirrek saio borobila eginda finalerako sailkatzea lortu zuen eta erabat hunkituta hartu zuen berria, bertsokideek eta Anaitasunako publikoak bezala.

Iñigo URIZ | ARGAZKI PRESS

1936ko oholtza

1936. urteko oholtzak garaiko oholtzapeaz gauza asko kontatzen ditu. Irudian, Bertsolari Egunez lehiatu ziren bertsolariak. Irabazlea, Txirrita, argazkiaren erdi-erdian ageri da. Gizonezkoak, jantzi ilunak, txapel beltzak...

FOTOCAR | KUTXATEKA



1967, Uztapideren hirugarrena

1967an Donostiako Anoeta pilotalekuan jokatu zen Bertsolari Txapelketa, orduan Euskaltzaindiak antolatua. 1936koan abisua eman zuen Uztapidek bere hirugarren txapela segidan jantzi zuen urte hartan.

Paco MARI | MARIN FUNTSA | KUTXATEKA



Soiltasun soila

Bertsolaritza orokorrean apaindura gutxiko jardura da. Hitzak eta arrazoiak daukate pisua eta soiltasun horrek egiten du hain indartsua jarduna. Egun soila izaten segitzen du, baina izan ditu sasoi soilagoak.

Paco MARI | MARIN FUNTSA | KUTXATEKA



Uztapide, 1936an

1936ko bigarren Bertsolari Egunean Txirrita izan zen irabazle. Uztapide gaztea bigarren geratu zen eta etorkizuneko promesa gisa iragarri zuten.

FOTOCAR | KUTXATEKA



Amuriza txapeldun 1980an eta 1982an

Xabier Amurizak haize berria ekarri zuen txapelketara eta bertsogintzara. Euskal Herriko txapela jantzi zuen 80an eta 82an eta pauso oso propioa markatu.

Javier GALLEGO

Bertsozale Elkartearen bigarrena

Irudian, 1989ko Txapelketa Nagusiko finala, Bertsozale Elkar-teak antolatutako bigarrena. Lazkano, Lopategi eta Egaña ikus daitezke. Justuki, abenduaren 17an jokatu zen final hura Belodromoan eta Jon Lopategik irabazi zuen.

Juantxo EGAÑA



Estutasuna eta kea

Aldatu dira jantziak, orrazkerak, argiak... eta baita kea ere. Lehen presentzia handia zeukan tabakoak oholtzan, estutasun uneak sa-murtzeko bide ematen dielakoan erretzaileei. Beste toki asko be-zala, oholtzak ere kerik gabeko gune dira orain.


Juantxo EGAÑA



Sebastian Lizaso, 1993an

Irudian, Aritz Lopategi eta Sebastian Lizaso, biak pentsakor, 1993ko finalean. Egaña bere lehen txapela jantzi zuen final har-tan eta geroztik Lizaso-Egaña tandem plaza asko egindakoa da. Gaur Lizasok jantziko dio txapela txapeldunari.

Juantxo EGAÑA



2001eko buruz burukoa

Belodromoko azken finala izan zen 2001. urte-koa. Maialen Lujanbio eta Andoni Egaña iritsi zi-ren buruz burukora eta saio gogoangarria josi zu-ten bien artean, jendearen memoriak idazten duen historiara pasatzen diren bertso horietako asko utziaz bidean.

Jon URBE | ARGAZKI PRESS



Borroka

Bertsolaria borrokan dago etengabe bere buruarekin. Burua makurtu eta barrura begira jartzeko unea ez da hainbeste aldatu. Irudian, Unai Iturriaga eta Andoni Egaña, 2001eko finalean.

Juantxo EGAÑA



BEÑAT GAZTELUMENDI ARANDIA

Añorga, 1987. 2013ko Txapelketa Nagusian finalista izan zen eta 2015ean Gipuzkoako txapeldun. Bigarren finala du. Kazetaria da eta Bertsozale Elkarteko hedapen taldean lan egiten du. Umetatik bertsoaren jiran.

amagoia.mujika@gaur8.info

«Fresko nago,
pozik eta lasai
samar. Badakit zer
egin behar dudan
eta horretara
joango naiz»



«Duela lau urte
baino bertsolari
hobea naiz. Ja ez dit
balio finaleko berria
izateak, finalera
gozatzeraz joateak,
han egon naizela
esateak... Uste dut
aurten nire ahotsa
erakustea eta nire
onena ematea
eskatuko zaidala»

Azaroaz geroztik zailxeagoa omen zaio kallean lasai samar ibiltzea. Jendeak zoriondu egiten du kalean, animoak eman, bultzatu... Denak hitz goxoak izanagatik, finalaren bezperako egunetan pixka bat apartatzen saiatuko da, bere burua besteena baino ozenago entzun nahi duelako. Lasai joango da BECera, entrenatuta eta bertso gose puntu batekin. Ez da berria finalean, baina finaleko gazteena izaten segituko du.

Berriro ere gazteena zara, baina aurreko finaletik desberdin zaude, ezta?

Zenbakitan ematen du antzeko posizioan nagoela, baina lau urte zaharragoa naiz, tartean Gipuzkoako txapelketa bat egon da, plazan asko ibili naiz... Uste dut duela lau urte baino bertsolari hobea naizela. Sentitzen dut aurtengo txapelketa berezia dela niretzat. Lehen aldiz iristea ez da erraza, baina bigarren aldiz iristea eta zure tokia konfirmatzea zailagoa da; beranduago hasten zara txapelketan, presioa desberdina da, eskatzen dena desberdina da... Txapelketa hau desberdin bizi izan dut. Ja ez dit balio finaleko berria izateak, finalera gozatzeraz joateak, han egon naizela esateak... Uste dut aurten nire ahotsa erakustea, naizena erakustea eta nire onena ematea eskatuko zaidala eta horretarako prestatu naiz. Plaza gustatu zitzaidan duela lau urte eta uste dut prest nagoela plaza horretan naizena erakusteko.

Duela lau urte agurrera arte ez nuen une politik utzi eta aurten hasieratik nahiko nuke nire ahotsa bilatu, hitz bakoitzarekin borroka gehiago egin, lotsagabe aritu gai batzuetan, beste pisu bat hartu. Horretara noa.

Nabarmena da lau urtean zentzatu den oholza gainean hazten ikusi dugun mutiko hura.

Uste dut oinarrian ez naizela hainbeste aldatu. Nire bertsokerran geruzak kentzen joan naizela uste dut. Nik uste dut bertsolari gehienok –nik, behintzat, bai– plazan beldurra sentitzen dugula; gaia entzun eta ea horretatik nola ateratzen zaren. Entrenamenduetan beldur horren gainetik geruzak jartzen ditugu, egoera horietatik ateratzen asmatzeko leku seguru samarrak bilatzeko ahalegina egiten dugu; sendotasun itxura eman, arrazoi potolo samarrak bota... Nik uste dut geruza horiek denak nituela bertsotan egiteko orduan, momentuan beldur edo estutasun horretatik atera ahal izateko. Uste dut azken urteotan geruzak kentzen joan naizela; zer da esan nahi dudana, gai baten aurrean non nago kokatuta... Uste dut duela lau urte hasi nintzela erakusten non nagoen. Bertso asko kantatutakoa naiz entrenamenduetan, eskolartekoetan ume-umetatik, anaiarekin... Azkenean ikasia den funtzionatzeko modu bat daukazu, aldi berean, benetan egin nahi duzunetik urruntzen zaituena, ofizioak eskatzen dizuna eta ez hainbeste gorpuztak.

Duela lau urte gorpuztetik gehiago kantatzeko ahalegina egin nuen. Gipuzkoakoan bide horretan beste pauso eman nuela uste dut eta orain sentsazioa daukat ahots horretatik ari tuko naizela, baina ahots horrek orain erregistro gehiago dauzka eta horietara gai gehiago ekartzeko moduan sentitzen naiz. Duela lau urteko finalean gai zehatz batzuetan akaso lortu nuen nire ahots hori ekartzea, baina beste gai batzuetan kosta egiten zitzaidan lur hartzea. Oso ideie-

tatik eta diskurtsotik aritu nintzen eta ez hainbeste gorpuztetik, emoziotatik, lokatzetik... Uste dut orain gehiago lortzen dudala lurrera iristea eta finalean nahiko nuke lehen bertsotik lurrera etorri eta lurretik kantatu.

Gauza txikietan arreta handia jartzen duen pertsona zara.

Uste dut gizarte bezala ere eman dela aldaketa hori. Bertso gintzaren garapena ere hori ikusten dut; herriari eta arrazoi potoloei kantatzetik, etxera eta gai zehatzagoetara pasatu gara. Uste dut salto hori egin dugula azken urteotan eta niri pertsonalki hobeto datorkit, ez naizelako ideiak bereziki garbi dituen pertsona bat, esaten duena oso seguru esaten duena... Zalantza gehiago bizi dut.

Txapelketan presentzia gutxi izan dute gai politikoei.

Uste dut lan handia egin dela gai-jartzaileen aldetik, askotan aipatzen ez den lan bat. Baina, era berean, uste dut gizartean ere aldatu egin dela politika zer denaren pertzepzioa. Lehen politika gai zehatz bati lotzen zitzaion, eta, gatazka esaten genuenean, bakarraz zegoen Euskal Herrian. Eta orain gatazka asko daude. Politika da gatazka deitzen zitzaion hori baina politika da markatzen ditugun pertsonaiek agertzen dituzten ereduak, daukaten sentitzeko modua... Egia da politika potolo horri ez zaiola hainbeste kantatu, baina bai politika txikiago horiei. Eta uste dut bertsolariek ere ahalegin hori egin dugula.

Generoaren gaiak burrunba sortu du. Emakume kantakideak pisu handiarekin ikusi al dituzu?

Hasteko, txapelketa berez da injustua, txapelketa den aldetik.

Bertsoak badauzka alderdi gutxi batzuk objektiboak, matematikoak eta neurgarriak direnak; baina, hortik aurrera, dena da subjektiboa eta bakoitzaren araberakoa. Beraz, txapelketan parte hartzea erabakitzen dugun unetik injustizia horretan parte hartzen ari gara. Segur aski hori baino injustizia handiagoa da txapelketa batean berdin epaitzen direla plazan mila urte daramana eta hasiberria dena. Baina hori ere onartu egiten dugu eta txapelketaren grazia handienetakoa da gainera.

Finalean zazpi gizon eta emakume bat izango gara, eta horrela esanda badirudi zazpi gizonek berdin funtzionatzen dugula. Emakumeengan espektatiba bat zegoen jarria –segur aski kanpotik eraikia– eta hori

egin den lanaren ondorioa da. Gai-jartzaile taldean, adibidez, lan handia egin da genero ikuspegitik gaiak beste era batera formulatzeko –eta egiten segitu beharko da–; emakume bertso-lariek lan handia egin dute, bai nork bere aldetik eta baita taldean ere; eta plazan salto hori eman da.

Baina sentsazioa daukat ni finalera iristea ni bakarrik iristea dela. Ez banintz iritsiko, nik eta nire ingurukoek pena hartuko genuke, baina horretan geratuko litzateke kontua. Txapelketa guztietan sentitzen dut –eta bereziki aurtentzen– aurretik ere eskatzen zela bigarren emakume bat finalean. Norbera kantatzera doanean oso muturreko egoera batera doa, ez da erraza plazan egotea. Eta, gainera, horri erans-

«Norbera kantatzera doanean oso muturreko egoera batera doa, ez da erraza. Eta, gainera, horri eransten badiozu kolektibo oso baten sinbolo bihurtzea, egoera are estuagoa da. Presio horren inguruan pentsatu beharko genuke»



ten badiozu kolektibo oso baten sinbolo bihurtzea, egoera are estuagoa da. Denok pentsatu beharko genuke presio horren inguruan.

Finaleko argazkia oso garrantzitsua da, baina txapelketan ekarpen handiak egin dira eta ez dadila finaleko argazkia bakarrik gelditu.

Finalean «zazpi betiko eta berri bat» izango zaretela irakurri dugu. Baina lau urtean asko aldatu daitezke bertsolariaren ahotsa, mundu ikuskera, kantatzeko tokia...

Finala beti da berria. Neronek ez daukat neure burua betikotzat. Duela lau urtetik hona nire bizitza asko aldatu da, plaza bizitzeko modu desberdina dut orain, kantatu beharraren beldurra

desberdina da... Etengabe ari gara gizartera egokitzen, gaitegia errepasatzen, errimategia lantzen, doinutan ekarpenak egiten, ahotsaren erregistroak kudeatzen... Etengabeko lanketa bat dago txapelketa guztietan eta asteroko plazetan. Txapelketa ibilbide baten puntu bat bakarrik da, ez da ez hasiera ez bukaera. Ibilbidea ez da gelditzen txapelketa hasten denean. Aurtengo finala ez da duela lau urtekoa izango.


Lasai zaude, denbora eskaini diozu txapelketari...

Nik berez Bertsozale Elkarteko hedapen taldean lan egiten dut; Bertsoa.eus, “Hitzetik hortzera”, “Aulki-jokoa”... Kantatzen ari zea eta grabatzen ari zea aldi berean ez da erraza eta horregatik erabaki nuen txapelketa garaian lana uztea. Badirudi orain egun osoa entrenatzen pasatzen dudala eta ez da horrela. Nire burua gehiago zaindu, ingurukoak gehiago zaindu, entrenatu... horrela ari naiz. Anaiarekin ari naiz entrenatzen, hark lehen aldiz kantatu baitu txapelketan. Eta gero bakarkako lan handia egiten dut. Alaia Martinekin ere ibili nintzen hasieran...

Saioko egunak hobeto aurreikusten eta saiora ondo iristen ahalegindu naiz. BECera entrenatuta iritsiko naiz. Maulen lotu samar aritu nintzen, Amurrión askeago eta Amurriotik hona beste salto bat egin dudala uste dut. Fresko nago, gustura, pozik eta lasai samar. Badakit zer egin behar dudana eta horretara joango naiz.

Unai Agirre izango da finalista berria.

Pozik nago, nahiz eta beste edozein sartuta ere pozik nengokeen. Kantukide oso ona da eta babes handia ematen duen pertsona da.



Juan Carlos RUIZ | ARGAZKI PRESS

«Niri gaztetatik serioaren etiketa jarri didate eta azken finalean hori pixka bat haustea lortu nuen»

AITOR MENDILUZE GONZALEZ

Andoain, 1975. Ume-umetatik, Hernaniko bertso eskolako kidea. Bi aldiz jantzi du Gipuzkoako txapela eta aurtengoa bosgarren final nagusia du. Hezkuntza arautuan bertso irakaslea da.

amagoia.mujika@gaur8.info

Neke puntu normalarekin eta estutasunik gabe omen dago. Bosgarren finala du eta abantaila da aurretik oholtza handi horretan sentsazio uholdea bizi izana. Azken finalak utzitako zapore gozoa oraindik ahosabaian du.

Bi saio finalera bidean: Durango eta Iruñea. Kanpotik, behinik behin, bi saio desberdin.

Eta baita barrutik ere. Durango-ra hanka puntetan joan nintzen. Lehen saioa zen, ordurako bertso eskolako kideak saio bat edo bi eginak zeuden eta horrela iritsi nintzen, ea zer topatuko. Behin oholtzan eroso sentitu nintzen, nahiko nire tokian eta gustura. Bertsotarako egun polita atera zen; tentsioan nengoen eta aurretik izandako zalantza guztien erantzun modura energia handiz aritu nintzen.

Plazako bertsokera eta txapelketakoa gehiegi ez urruntzeko kezkatik kantatu ote zenuen...

Gure bertsokera –bertso eskolako kuadrillaz ari naiz– beti izan da librean asko egin izanaren ondorioa; batzuek freskotasuna esaten diote, saioa irakurtzeko eta gaia bera irakurtzeko jarrera bat... Hori da, nire ustez, plaza-tik txapelketara hainbeste alda-

tzen ez duguna, eta, beharbada, aldatu beharko ez genukeena.

Txapelketan apustu pertsonal desberdinak ikusten dira eta momentu honetan txapelketa bi bertsokeraren arteko oreka batean ikusten dut. Batzuen bertsokera teknifikatuago da,

koaderno gehiagokoa, apustu estetiko nabarmenagoa duena –teknikaren eta hizkuntza landuaren erabilera–. Eta, bestetik, kontatu behar dena kontatzeko hizkuntza lurtarrago bat darabilen bertsokera dago, esamoldeetan indarra bilatzen due-


na, hizkuntza erabilerrazagoaren baliabideetan arreta jartzen duena. Txapelketan erdi eta erdi ikus daitekeela esango nuke.

Beharbada, gurea, gure arteko desberdintasun guztiekin, bigarren horretara gehiago hurbiltzen dena dela esango nuke. Bat ez da bestea baino hobea, desberdinak dira eta kito.

Iruñeko saioan protokoloa saltatu eta Unai Agirre besarkatzera altxatu zinen.

Bai, berezia izan zen. Elkarrekin joan ginen kotxean kontuak esanez eta barre eginez. Zozketa egiteko garaian ere garbi genuen taldea egin behar genuela eta saioaren ezaugarri berezi

guztiak elkarrekin bizitu genituen. Hala ere, berdin poztuko nintzateke beste bat sailkatu izan balitz. Baten batek esan dit Alaia, Miren eta Oihana han egonda eta saioan gertatu zena gertatuta, halako poz keinua egin izana ez zela egokia izan. Tira, nik uste dut kantukide guztiek ederki ulertu zutela han gertatu zena. Unai eta biok elkarrekin debutatu genuen 10 urte genituela, Hernanin. Hilabeteko epean bi saio egin genituen; bat Floridako jaietan, eta, bestea, Eskolartekoan. Bertso bizi osoa elkarrekin eman ondoren, txapelketa guztiak elkarrekin prestatu ondoren, erabat normala izan zen besarkada ho-





ri. Nire buruarenak baino poz handiagoa eman zidan Unai Agirrerenak.

Andoaingoa zara izatez, nahiz eta orain Iruran bizi. Nolatan agertu zinen 10 urte zenituela Hernaniko bertso eskolan?

Garai hartan Andoainen ez zegoen bertso eskolarik. Gure amak jakin zuen Hernanin Juanjo Uriarekin abiatu zirela bertso eskolan eta hara eramán ninduen, nik eskatuta. Eskolan zeozer ikusi genuen bertsolaritzaz, etxean ere hitz egiten zen horri buruz eta niri gustatu egiten zitzaidan.

Bosgarren finala duzu. Duela lau urteko finalean arratsaldean sekulako saioa egin zenuen eta jende asko konkistatu zenuen.

Bai, segur aski zalantzan zegoen jende asko. Nik bertan izan nuen irudipena izan zen goizean jo ez zizkidaten txalo batzuk jo zizkidatela arratsaldean. Ordura arteko finalerdiak ere nola baitekoak egin nituen eta jendeak ez zuen nirekin kontatzen. Arratsaldeko saioan jende gehiago gerturatu zen nigana eta hurrengo urteko plaza kopuruan ere antzeman nion.

Garrantzitsua izan zen arratsaldeko kolpe hori.

Nire plazako ibilbidean ez hainbeste, ordura arte ere banenbilen urtean 80-95 plaza egiten. Txapelketa ondorengo urtean ehun plazak pasatu nituen, baina, tira, saltoa ez zen hainbestearinokoa izan. Baina jendearen pertzepzioan esanguratsua izan zen. Nik uste dut jende askok ordura arte nigan ikusi ez zuen zeozer ikusi zuela, lehen ere hor zegoena baina hainbeste jendek ezagutzen ez zuena. Erakusleihen horrek hori du. Klabea izan zen zentzu horretan, jendearen per-

tzepzioan. Beharbada horrek lagundu dit plazan azken hiruzpatalau urtean; jendeak nigan beste zeozer espero izatea, gertuago sentitzea...

Bai, gertuago sentitu zintuen jendeak.

Behin Iturriagak esan zuenez, estereotipoek bide batean jartzen zaituzte, eta hori ona izan daiteke, baina ez dizute uzten beste bide batetik joaten. Niri oso gaztetatik serioaren etiketa jarri didate. Gertukoek esaten didate ezetz, ez dela egia. Horrelako erakusleihen batean zaude-nean, librean afari batean ikusi zaituenak badaki ez zarela serioa, baina han 14.000 pertsona daude, gehi telebistaz segitzen ari direnak, eta egoera horretan estereotipoek pisu handia hartzen dute. Nik uste lortu nuela seriotasunaren estereotipo hori pixka bat haustea eta nire baitan zegoen alderdi bat ateratzea.

Pisua kendu zenuen gainetik.

Pisua kendu nuen ez horregatik, bestela. Aurreko bi finaletan oso gris aritu nintzen, ez nuen gozatu. Finalera iritsi eta handik sei hilabetera norbaitek ni han egon nintzela gogoratzea nahi nuen. Pasa izan zait finalean egon eta inor ez gogoratzea han egon nintzenik ere, eta hori da final batean gerta dakizukeen gauzarik txarrena. Banuen final batean zerbait uzteko gogoia.

Duela lau urteko finala eta Durangoko finalaurrekoa ikusita, askok buruz burukoan kokatzen zaituzte.

Ez dut presio hori sentitzen. Gainera, postuak ez nau batere kezkatzen, txarrenera zortzigarren izango naiz eta hori asko da. Nik txapelketak inoiz ez ditut postutik ez pentsatu ezta baloratu ere. Gehiago emaitzatik ikusten ditut, eman dezakeda-

«Pasa izan zait finalean egon eta handik sei hilabetera inor ez gogoratzea han egon nintzenik ere, eta hori da final batean gerta dakizukeen gauzarik txarrena»

«Ez daukat errimen koadernorik; ez dakit egingo ote nukeen edo egin nahiko ote nukeen ere. Ez naiz errimen zerrenda itxien zalea, arriskuak ikusten dizkiet-eta. Erabiltzekotan, koadernoan ondo erabili behar da»

netik. Ematen baldin badut eta sentsazio onak baldin baditut, kontziente naiz nahiko postu ona lor dezakedala. Baina ez nau postuak kezkatzen, sentsazioek kezkatzen naute.

Beti lasai dirudizu.

Bost final dira. Tentsioan nago, baina lasai nago. Ez nago bereziki agobiatuta edo itota. Neke puntu bat daukat, normala, baina ondo aurkitzen naiz. Bertigo handiena saio txar bat egiteak ematen dit, indibidualki eta kolektiboki. Lehenik eta behin 14.000 lagunei saio on bat eskaini behar zaie, eta, ahal bada, denok ona. Eta gero gerokoak. Horrek kezkatzen nau.

Bakarkakoak kezkarik sortzen dizu?

Ez. Durangon traba tonto bat izan nuen. Aukeratutako bidea ere arin samarra zen igual. Iruñean ez nuen bakarkako txarra egin, nahiko gustura geratu nintzen, bai aukeratu nuen bidearekin eta baita bidearen irakurketarekin ere. Nahiko konforme geratu nintzen. Bakarkakoak ez dit kezkarik sortzen. Gustatzen zaidan ariketa bat da, baina badakit gero parean jo behar dela.

Zure saioak ondoren berriro ikusi dituzula esan duzu. Zure saioak aztertzea gustatzen al zaizu?

Ez pentsa. Egin dizkidaten komentario batzuen harira ikusten ditut. Saioan bertan pertzepzio distortsionatu samarra izaten duzu, zure buruaren barruan eta kanpoan gertatzen ari denaren inguruko nahasketa bat. Ariketa zehatz batzuk ikusi ditut. Baina ez da estrategia bat. Gustatzen zait kanpotik nola ikusi den edota nola ulertu den ikustea. Baina ez dut obsesiboki egiten.

Diziplinatua dirudizu.

Bai eta ez. Txapelketa garaian nahi gabe txapelketa daukazu etengabe buruan eta buelta asko ematen dizkiezu gauza askori. Baina etxean ez ditut bost minutu pasa txapelketa prestatzen. Bideo asko eskoletan ikusi ditut, umeek eskatuta, edota bertso eskolan. Baina ez etxean. Eta koadernoko lanik ez dut egiten. Ez daukat errimen koadernorik; ez dakit egingo ote nukeen edo egin nahiko ote nukeen ere. Lehen aipatu dizkizudan teknifikazioaren eta beste jarreraren artean koadernoan dago. Koadernoan ondo erabili behar da. Ez dut esan nahi batzuek koadernoan erabiltzen dutenik eta besteek ez, baina, erabiltzekotan, ondo erabili behar dela uste dut. Nik, esaterako, errima zerrenda itxiak egingo banitu, arriskua legoke bertsoa horietara eramatekoa eta hori ez nuke nahi. Baina hori ez baduzu lantzen, gerta daiteke zeozer nahi izatea eta errimarik ez izatea horretarako. Hori ere bai.

Eta nola lantzen dituzu?

Jardunez. Bertso eskolan jardun eta jardun, errimak apuntatu eta elkarri errimak osatu... niretzat bertso eskolako lana eta giroa oso garrantzitsuak dira. Txapelketa gogorra da, ahalegin handia eskatzen du, ordu asko... jendeak pentsatzen duena baino gogorragoa da txapelketa. Gure kasuan hori taldean biziko ez bage-nu, askoz gogorragoa litzateke eta askoz zailagoa aurrera jarraitzea. Bertso eskolak funtzio bat baino gehiago dauzka: bat da norbere burua prestatzea, bestea besteen iritziak jasotzea –gure bertso eskolan gauzak esan egiten dira, txarrak eta onak– eta bestetik giroa dago; txapelketa bizitzea, gauzak ulertzea, etor daitekeen uholdearen aurrean prestatzea, babestua sentitzea, sentsazioak partekatzea...

Begiratzeko modua aldatzeak
aldatu dezake mundua

